


# astola

ikerketa eta historia

DURANGALDEKO URTEKARIA

7.zk 2013 5e



AQUELLOS MARAVILLOSOS "SANANTONIOS"

AUZO ELKARTEEN BORROKAK

LA FÁBRICA DE ARMAS DE DURANGO

TXAKOLINA, URTEKO ARDOA?

EL MISTERIO DE MIKELDI



01.



02.



03.



04.



05.



06.



## astola 7.zk | 2013ko urria

Astola iritzi orori zabalik dagoen aldizkaria da, horrek ez du esan nahi artikuluen sinatzaileekin bat datorrenik.

**Erredakzioa, publizitatea eta administraritza:** Gerediaga Elkarte, Larrasoloeta, 3 48200 Durango, Tel. 94 681 80 66, Faxe: 94 621 80 23, e-mail: [gerediaga@durangokoazoka.com](mailto:gerediaga@durangokoazoka.com), [www.gerediaga.com](http://www.gerediaga.com) • **Koordinatzailea:** Txelu Angoitia • **Erredakzio kontseilua:** Jose Mari Uriarte, Jon Irazabal, Izaskun Ellakuriaga, Nerea Mujika • **Argazkia:** Txelu Angoitia • **Publizitatea eta administraritza:** Aitziber Atorrasagasti • **Dokumentazioa eta banaketa:** Esther Garcia, Esther Soto • **Diseinua eta maketazioa:** [www.di-da.com](http://www.di-da.com) • **Inprimategia:** Gertu koop. • **Lege gordailua:** SS-1525-07 • **ISSN:** 1888-234X

© Argitalpen honena, Gerediaga Elkarte 2013

© Testua eta argazkiak, egileena

[www.gerediaga.com](http://www.gerediaga.com)

# sumarioa



**06.** LABURREAN **14.** BANDOEN ARTEKO GERRAK / JUAN M. GONZALEZ **30.** AQUELLOS MARAVILLOSOS SANANTONIOS / JUAN A. HERNANDEZ **44.** AUZO-ELKARTEEN BORROKAK / RAKEL CALVÓ **58.** TXAKOLINA, URTEKO ARDOA? / URI ASTOLA **74.** LA FÁBRICA DE ARMAS DE DURANGO / JUAN L. CALVO **88.** BARRUKO IBILBIDEAK **102.** DURANGO EN EL GRABADO / JOSEBA AIZPURUA **120.** ERMUA, MILAKA ETORKINEN HARLEKU / ESTIBALITZ GONZÁLEZ **132.** EL MISTERIO DE MIKELDI / FERNANDO FERNÁNDEZ Y MIKEL UNZUETA **146.** ELORRIOKO MONASTEGIAK ETA KOMENTUAK / IGOR BASTERRETXEIA **162.** PASIÓN POR LA BÚSQUEDA / LOREA MADINA

**E**lkarteei eta borondatezko lan sozialari buruzko bi artikulu argitaratu ditugu aldizkari honetan ("*Auzo-elkarteen borroak*" eta "*Pasión por la búsqueda*"). Gaiak kezkatzen gaitu, batez ere, kultur arloan.

60ko eta 70ko hamarkadetan herritarrek bultzatutako mugimendu asko sortu ziren. Momentuko erakundeek betetzen ez zituzten beharriaz erantzun modura sortu ziren. Militantzia eta gizarte-ekintzailetasuna ezaugarritzat zituen egoera politikoan aurkitu zitekeen babesa garrantzitsua zen mugimenduontzat.

Transizioarekin, erakunde berriek hartu zuten euren gain kultur ekintzen kudeaketa, finantziarioa eta azken baten kontrola. Era horretan, kultur eragileen (norbanako zein taldeak) profesionalizazioa etorri zen eta kasu askotan dirulaguntza publikoekiko lotura estua ekarri zuen.

Azken urteetako egoera ekonomiko onak gizarte indibidualista eta pasiboa sortu du. Horrek gizarte mugimendu askotan belaunaldi berrien hutsunea sortu du. Gainera, gaur egun kultura kontsumo eta ikusizun faktorea da eta ez errealitatea zalanza jarriko duena.

Ekonomia krisia batetik eta dirulaguntza publikoak gutxitzen bestetik, kulturgintzaren eta elkarteen eredia birplanteatzeko garaia izan daiteke.

Nork finantziatu eta nork kudeatu behar ditu kultur ekintzak? Zein da borondatezkoen eta militantziaren zeregina gaur egun? Lehengo elkarteen energia oraingo sare sozialen komunitateetan metatu da?

Momentuz galderak gehiago dira erantzunak baino, baina eztabaida zabalteak merezi duela uste dugu.



# hitzaurr

La inclusión en la revista de dos artículos relacionados con el asociacionismo y el trabajo social voluntario (*"Auzo-elkarteen borrokak"* y *"Pasión por la búsqueda"*), nos han llevado a plantearnos el estado de la cuestión. En este caso, en el ámbito de la cultura.

En los años 60 y 70 del pasado siglo se produjo una eclosión de movimientos ciudadanos. Surgían para responder a necesidades que las instituciones del momento no cubrían, y funcionaban en un contexto político marcado por la militancia y el activismo social.

Con la transición, las nuevas instituciones asumieron progresivamente la gestión, la financiación y por tanto el control de la actividad cultural. Se produjo así una profesionalización de los agentes culturales (individuales y colectivos) que pasaron en muchos casos a depender totalmente de la política de subvenciones públicas.

La bonanza económica de los últimos años, ha dejado tras de sí una sociedad marcada por el individualismo, la pasividad y la falta de relevo generacional en la mayoría de los movimientos sociales. La cultura es hoy más un objeto de consumo y espectáculo que un factor transformador y cuestionador de la realidad.

Ahora que la crisis económica nos pone los pies en la tierra, y las subvenciones públicas comienzan a escasear, quizás sea el momento de repensar el modelo asociativo y cultural.

¿Quién debe financiar y gestionar la actividad cultural? ¿Cuál es el papel del voluntariado y la militancia en el momento actual? ¿Ha habido un trasvase de la energía de las asociaciones tradicionales hacia las comunidades en redes sociales?

Por ahora, tenemos más preguntas que respuestas, pero creemos que merece la pena abrir el debate.



ea



Arabio Jauregia, Elorrioko BBK-ko egoitza.



BETIDANIK  
DURANGALDEAN

**bbk =**

# LABURREAN

## ARKEOLOGI-INDUSKETAK DURANGALDEAN



### ARGIÑETA. II KANPAINA

Maiatzaren 20tik uztailaren 17ra Arkeologi Museoak 2. indusketa-kanpaina egin zuen Argiñetako arkeologia-aztarnategian. Kanpaina Foru Aldundiaren eta Elorrioko Udalaren arteko hitzarmen baten emaitza izan da. Iñaki Garcia Camino eta Sonia Añibarro arkeologoek zuzendu dituzte indusketa-lanak. Iaz nekropolian eta herrixkan egindako azterketari jarraipena ematea izan da kanpaina honen helburua.

Nekropolia uste baino askoz handiagoa da, gaur eguneko San Adrian ermitaren iparraldetik hedatzen delarik. Nekropoliko hilobiak hobi sinpleak dira, harlauza handiz estalitakoak (batzuk pieza ba-

karrekoak); datari dagokionez, VIII. mendetik XI. mendera artekoak. Lurraren ezaugarriak direla eta, hezurren kaltzio-karbonatoak desegin egin dira, eta, ondorioz, hilobi gehienak hutsik daude. Eskeleto banaka bat baino ez dute aurkitu, oso egoera kaxkarrean gainera.

Disko-formako hilarri bat ere aurkitu dute. Behe-erliebe batez apañduta dago. Irudia gurutze bat da, ertzetan zabalagoa dena. Gurutzearen gainean hildakoaren izena ageri da: "Aczenari". Izen hori Etxanoko hilarri batean ere ageri da (gaur egun Arkeologi Museoa dago). Dena dela, hilarri hori behin baino gehiagotan erabilitakoa dela argitu behar da.





Herrixkan zutabe-zulo, erreten eta terraza ugari aurkitu dituzte kanpaina honetan. Labeak eta zereala gordetzeko zulo bat ere aurkitu dituzte. Zuloaren barruan burdinazko igitai bat zegoen. Kantauri isurialdean dokumentatutako lehenengo siloa da. Bestalde, Bizkaian aurkitutako Erdi Aroko lehen igitai ere bertan agertu da.

Maila desberdinak aztertuz, Goi Erdi Aroko zeramikazko ontzien zatiak (sukaldeko lapikoenak batez ere), burdinazko labanen bat eta animalia-aztarnaren batzuk aurkitu dituzte.

Badirudi aurkikuntza guztiek bizitoki bakar baten berri ematen dutela, nahiz eta eraikin bat baino gehiagoz osatuta egon. Gainera, bizitokiak denboran zehar aldatetak izan zituela ematen du.

Iaz bezala, aurten ere erromatarren garaiko material batzuk ere aurkitu dituzte.

## TABIRA

Indusketaren helburu nagusia Tabirako San Pedro elizaren balizko balio arkeologikoa aztertzea izan da. Hori jakiteko, hegoaldeko elizpean zundaketa egin zuten; elizaren barruan, aldiz, prospekzioa, georadarra erabiliz.

Belen Bengoetxea eta Teresa Campos arkeologoen zuzendutako proiektua urritik urtarrilera gauzatu zen. Lanok Durangoko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntasuna izan zuten.

Etxeke zeramikaren zatiak eta hiru hilobi aurkitu ondoren, Tabiran Goi Erdi Aroko bizitoki bat eta nekropoli bat zeudela pentsatzea bidezkoa da. Horrez gain, badirudi gaur eguneko eliza baino beste tenplu zaharrago bat egon zela, eta nekropolia handiagoa izan daitekeela (gaur eguneko elizan egon daiteke).

*Argazkia: Jose Mari Uriarte*

## FOTOSOL | DURANGO

Azaroan Jose Luis Angoitiak agur esan zigun. Gizon handi hark gozo hartzen zuen jendea Foto Sol argazki-dendan. Bata zuria jantzita gidatzen zituen bezeroak estudiora, eszenatoki miragarria. Orrazteko eta ezpainak umeltzeko esaten zien gero. Jose Luisek kankailu narrazenari ere modelo-poseak eskatzen zizkion. Ondo iriztitakoan, klik! Eta oineztu tankerako bristada batek izoztu egiten zuen keinua.

Baina Jose Luisen lana ez zen geratzen argazki hutsean, argazki asko koloreztatzen baitzituen. Esate baterako, emakumeen erretratuetan margoak zabaltzen zituen putz eginez. Kontu handiz egiten zuen lan hori, erretratuak tximeleta-hegoak balira bezala.

Bizimodu gogorraren ondorioz, argazkiak egitea eta jorna



ateratzea beti etorri dira bat Foto Solen. Jose Luisek beti aitortu du hori. Baina apaltasunak ez dio baimenik eman beste gauza batzuk esateko. Adibidez, erretratista eta erreportari bikaina izan dela adierazteko. Zenbat ekitaldi ofizial! Zenbat ezkontza! Zenbat jaunartze! Zenbat kirol!

Joan da Durangotik, baina arrasto handia utzi du herrian: Durangaldeko jende gehienaren irudia betikotu du.

*Testua eta argazkia:*  
Jésus Mari Arruabarrena

## AUZOLAN DORRETXEAN | ZALDIBAR

Zaldibarko dorretxea Durangaldeko leinurik garrantzitsuenetakoa den bizitoki izan zen mende askoan. Gaur egun, orduko handitasunetik urrun dago dorretxea; horma zatiak, egurrezko habeak eta elementu artistiko batzuk geratzen dira bandokideen sasoian zuen botere handiaren erakusgarri.


Zaldibarko biztanleek, auzolanagaz, dorretxearen egitura eta inguruko belardiak garbitu eta dotore utzi dituzte. Ondarearen Europako Jardunaldien barruan dorretxearen erradiografia historiko hobeto aztertzeko.

*Argazkia:* Delfin Zubizarreta



## JAED | DURANGO

Aurten JAED-ek (Junta de Ayuda a Enfermos de Durango e lurreta) sortu zeneko 50. Urteurrena (1963-2013) ospatzen du. 50 urte luze eta emankor pasatu dira durangar gazte talde batek, Acción Católica-ri lotutakoak eta ardu-za sozialak zutenak, Luciano Francés, orduko Andra Mari-ko parrokiako apaizarekin indarrak batu eta JAED martxan jarri zutenetik. Helburua Durango eta lurretako behartsuei laguntza ematea zen eta, gaur egun ere, bada. Gabonetako Andra Mari elizpeko tonbolatik, jaietako paineluen salmentatik eta batez ere, bazkideen (partikularrak eta enpresak) diru-laguntzatik besteak beste lortzen ditu elkarte honek diru iturri nagusiak behar izanean daudenei laguntzeko (janari-banaketa, laguntza ekonomikoa...)



## DURANGOKO D



Aurreko hilabetetan eta merkataritza indarberritzeko plan bereziaren foroaren barruan, Perko izenekoan alegia, Durangok bere marka barria aurkeztu du.

Hiru logotipo heldu ziren finalera eta aukeratu Juan de Yciar kaligrafo durangarraren XV. mendeko esku izkribuetatik ateratako "d" hizkia izan da.

XV. mendean bizi izan zen Juan de Yciar. Garai hartan, inprentari esker, irakurketa komentuetatik eta monasterioetatik kanpora irten zen. Humanista izanik, eragin zuen iraultza kaligrafía eremuan, pertsona guztiek irakurtzeko eta idazteko moduko arauak ezarri.

Yciarrek hainbat kaligrafía sortu eta bildu zituen, Cancilleresca Bastarda izenekoak, besteak beste. dertasun ukitu garrantzitsua duen idazketa horrek "d" hizkia etzanda erakusten du. Eta hau izan da Durango bereizten duen esentzia eta izaera gaurkotasunez irudikatuzko aukeratu dan marka.



## MAÑARIAKO KULTUR ETXEA | MAÑARIA

Apirilaren 29an inauguratu zuten Mañariko kultur etxe berria. Errose Bustintza izena eman diote, mañaritar idazle ezagunaren omenez. Inaugurazio ekitaldian, 60 bat herritar batu ziren. Dantzarien agurraren ostean, barrura sartu eta bisita egin zuten. Bideo batean Korrika pasa zeneko irudiak ikusi zituzten, eta argazki lehiaketako erakusketa ere zabaldu zuten.

Kultur-etxea 200 metro koadrokoa da gutxi gorabehera eta hiru solairu dauzka. Bertan liburutegia, zaharrentzako areto bat, ikasgela bat eta erabilera askotarako beste gela bat ere aurkituko dituzue.



## KOFRADIAK | ELORRIO

Izenburu hori eman zioten Iturri jauregian irekitako erakusketa interesgarriari. Elorrioko Udalak eta Eleiz Museoak antolatutako erakusketa maiatzaren 13tik ekainaren 14ra arte egon zen zabalik.

Erakusketaren bidez kofradiei buruzko hainbat gauza ikasi genuen: jatorria, antolaketa, jarduerak eta ondare historiko-artistikoa besteak beste.

Kofradiek elkarte izaera solidarioa zeukaten. Erdi Aroan sortutakoak izan arren, batzuek gaur egunera arte iraun dute. Kofradiek gremio bateko kideak nahiz auzune batekoak elkartzen zituzten, beste kasu batzuetan fededun-elkarteak ere izaten ziren. Elorrioren auzo-kofradia batzuek bizirik



diraute oraindik: Miotakoak, Argiñetakoak eta Gazetakoak. Horien eginkizuna zabala izaten zen: ingurua kudeatu, bideak konpondu, premia zeukanari lagundu eta abar. Aldiz,

fededun-elkarteen helburua moralia izanik, santuak gurtzen zituzten. Berriotxoako San Balentin kofradia dugu horren adibide, berrietako bat gainera.

## MERIOAREN IBILBIDEA | DURANGALDEA

Gerediaga elkarteak jarri izan ditu 2013. urte honetan “Merioaren ibilbidea” bezala ezagutzen den ibilbidearen ikur diren totem-ak. 12 toki lotzen dituen ibilbide honek gure eskualdeko sorrera, erakunde propioak eta antolaketa politikoa ezagutzera ematen die bisitariari. Totem hauen bidez toki bakoitzeko ezaugarri bereziak azaltzen dira. Bertan inprimatutako berri eta argazkiez gain, informazio sakonagoa eskura daiteke, totemek duten QR kodeaz baliaturik.



## BALENDIN LASUEN | ZALDIBAR

Zaldibarko udalak bultzaturik eta lagun zaharrek babesturik, ekainaren 1ean, bere 80. urtebetetzean, Balendin Lasuen omendua izan zen bere elizateko pilotalekuan. Omenaldian parte hartu zuten elkarteetako ordezkariak goraiatu zuten, beste izendapen askoren artean Gerediaga Elkarteko ohorezko lehendakaria, bere bizitza oparoan Durangaldea eta Euskal Herriaren alde egindako lana bai kulturen bai beste arlo sozial eta politikoetan ere.



# AMANKOMUNAZGOAN ERE

## 2013KO EGITASMOAK:

- Berbalagun
- Aisialdiko begirale eta zuzendari ikastaroa
- Kirolean ere euskaraz
- [www.euskaragida.com](http://www.euskaragida.com)
- Beharsarea
- Zarea:  
[www.durangaldeaeuskaraz.eu](http://www.durangaldeaeuskaraz.eu)
- Zergatik ez tailerrak
- Zabu-zibu
- Gazteentzako tailerrak



Durangoko Merinaldearen  
Amankomunazgoa

Mancomunidad  
de la Merindad de Durango

[www.mdurango.org](http://www.mdurango.org)


# EUSKARAZ ASKOZ HOBE!



*kirolean ere*  
**EUSKARAZ**



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia



# Bandoen arteko gerrak

---

TESTUA: JUAN MANUEL GONZÁLEZ CENBELLÍN

---





Marrazkia: Imanol Larrinaga

---

Garai oparo baten ondoren, 1.300. urtearen inguruan zailtasun ugari gertatu ziren sasoi berean: klimari loturiko ezbeharrak, uzta kaxkarrak, janari urritasuna, goseteak, izurriteak, prezio-igoerak, monetaren debaluzioak eta abar. Hori guzti hori zela eta, Europa atlantiarrean krisialdi ekonomikoa gertatu zen. Eremu horrek ez zuen bururik jasoko 1.500. urtera arte gutxi gorabehera.

---

**K**risiak gizarteko maila guztiei eragin zien, jakina; baina guztiek ez zuten izan gaitasun berdina erantzuteko. Zailtasunei erantzuteko egoerarik onenean noblezia zegoen, boterea euren eskuetan zegoelako alde batetik eta gerlariak zirelako bestetik. Nobleek baliabide asko jarri zituzten martxan: merkataritzan esku hartu zuten, menpekoei betebeharrak ipini zizkieten, euren pribilegioak/gehiegikeriak erakundeetan onartu zituzten, eta justizia-administrazioaren arduren monopolioa eskuratu zuten. Baina batez ere nobleziak gerrari ekitea erabaki zuen. XIV. eta XV. mendeetan gerra zibil ugari izan zen. Nobleek bultzatutako gudu haien helburua argi zegoen: euren interesen aldeko erregea agintean eustea eta beste kasu batzuetan agintetik kentzea.

Maila geografiko txikiagoan, aipatutako gerra zibilen antzeko liskarrak gertatu ziren bandokideen artean. Familia nobleek inguruko beste familia batzuen aurka borrokatu ziren, bakoitzaren kontrol ekonomikoari eusteko. Euskal Herrian ere berdina gertatu zen. Egoera oso modu ulergarrian adierazteko, hona hemen azalpen xume bat: leinuak ondoko leinuen aurka borrokatu ziren, besteen aberastasun-iturriez jabetzeko, eta berenganatzeko aukerarik ezean, iturri horiek deuseztatzeko. Indar militarra areagotzeko, leinuek beste familia batzuen adiskidetasuna bilatu zuten. Elkartzeko joeraren ondorioz, leinu guztiek bi bando handi eratu zituzten: oinaztarra eta ganboatarra. Arerio biak 1330an hasi ziren elkarren aurka borrokan eta 1480ra arte jarraitu zuten, etenekin bada ere.

Ahaide nagusiaren menpe bildutako taldeari esaten zaio *leinua*. Taldea txikiak senidez osatuta egoten ziren gehienbat. Dena den, garrantziko leinuek kide ugari izaten zituzten: senide biologikoak nahiz politikoak, su-etenean zeudenak ("*atreguados*"), lekaioak,


*acotados* izenekoak (indarkeria-ekintza gehienak egiten zituzten gaizkileak), morroiak eta arduradun batzuk (ahaide nagusiarekin harreman zuzena zeukatenak).

Beraz, leinuaren aginte-eremukoa ia gizon guztiek osatzen zuten leinua. Eta leinuaren ahaide nagusia jaun eta jabe izaten zen. Ahaide nagusia senide guztien gainetik egoten zen arlorik gehienetan, eta menpekoei fideltasuna eta aginduak itsu-itsuan betetzea agintzen zizkien. Trukean, bere taldeko edonori laguntzeko prest zegoen, eta norbaitek bere taldeari irainen bat eginez gero -nahiz eta txikikeria bat izan-, erruduna zigortzeko prest ere bazegoen.




 Zaldibarko dorretxea, 50. hamarkadan. Roisin.



 Butroeko gaztelu zaharra.




 Etxaburuko dorretxea. Izurtza. *Indalecio Ojanguren.*

Durungaldeko lehenengo leinuak zaldibartarrak eta ibargoentarrak izan omen ziren. Lurraren jabetasuna zela eta, azkar hasi ziren bien arteko eztabaidak (por “*valer más en la tierra*”). Eta eztabaiden ondoren liskarrak etorri ziren. Aurretik tirabiraren bat egon bazen ere, benetako borroka 1332an etorri zen. Ibargoengo ezkutariek Zaldibarko Juan Roys eta 15 gizon bazkari batera gonbidatu zituzten Ibargoengo dorretxera. Bazkaltzen hasteaz batera gatza eskatu omen zuten (“*sal, sal*”). 50 gizon ezkutaleku batetik irten eta gonbidatuak hil zituzten. Harrez gero, esamolde bat entzuten da: norbaitek gatza eskatzen badu, “*ibargoentarrena ez dadila izan*”.

*“convidaron los escuderos de Ybargoen a comer a Juan Roys de Çaldivar, fijo de Ruy Sanches de Çaldivar, con XV omes, en la torre de Ybargoen. E quando se sentaron a comer pedieron: sal, sal. E salieron de una camara çinquenta omes que yasian escondidos, e mataron al dicho Juan Roys de Çaldivar e a todos los XV omes. E quedo por refran que quando alguno pide sal que disen «no sea de lo de Ybargoen»”.*

Era hartan hasitako liskarrak are gehiago korapilatu ziren kanpoko leinu indartsuen eraginez. Durangaldea oso tentagarria zenez, Bizkaiko familia indartsuak eskualdeari etekina ateratzen ahalegindu ziren. Beraz, bai butroetarrak (Muxika-Butroe gerora) bai abendañotarrak azkar agertu ziren eskualdean. Butroetarrek oinaztarren leinuko indar nagusia ziren Bizkaian;



 Muntsaratzko dorretxea, Abadiño. *Roisin.*



abendañotarrak, aldiz, ganboatarrenak. Bi talde horiek aipatutako data baino lehen ere esku hartu zuten eskualdean. Hara: 1327an abendañotarrek Ruy Sanchez Zaldibarkoa eta bere 10 gizon hil zituzten, lurraren jabetza ukatzeagatik (*“por que les contrariuava el mando de la tierra, e de aquel dia en adelante sienpre ovo enemistad entre los de Avendaño e los de Çaldívar”*). Gauzak horrela, zaldibatarrek oinaztarren leinuan kokatu ziren; ibargoentarrak, jakina, ganboatarren magalean babestu zirelarik. Horiek taldea aukeratu ondoren, familia txikiagoek ere pausu berdina eman zuten: unzueta-tarrek eta bernatarrek zaldibatarrekin bat egin zuten; eta Marzaa, Etxaburu, Muntxaraz, Berriz, Urkiaga, Unda eta Ibarra familiak ibargoentarrengana hurbildu ziren.

Desoreka horren ondorioz, ganboatarrek indar handiagoa izan zuten Durangaldean. Pentsa, Lope Garcia Salazar kronikariak ibargoentarrei eta euren adiskideei buruz hitz egiterakoan *“durangarrak”* izena erabiltzen zuen. Hiribil-



 Lope Garcia Salazar

duak ere bataren eta bestearen alde jarri ziren. Durango eta Elorrio ganboatarren aldekoak ziren; Ermu zaldibatarren aldekoa; eta Otxandion bi joerak azaldu omen ziren.

Garai horretatik aurrera sarritan gertatu ziren liskarrak. Ez zen etengabeko gerratean, baina tentsioa eta indarkeriarako joera baziren etengabekoak. Bortizkeria hark mende eta erdi baino gehiago iraun zuen. 1490ean Durangon, Elorrioren eta Durango Merindadean izandako erreketak, lapurretak, hilketak eta abar epaitu zituzten. Ildo beretik, martaatarrak eraikitzen ari ziren dorretxeari buruzko ikerketa agindu zuten 1498an.

Durangaldean bandoen artean izandako borrokak zehatz aztertzeak luze joko lukeenez, kasu argigarri batzuk baino ez ditugu aztertuko. Edonola ere, kasu adierazgarriak izan daitezke bandokideen indarkeriaren berri emateko, herritarrengan oro har eta aurkako leinuengan izan zuen eragina jakiteko.



 Etxaburuko leinuaren armarría, Izurtzako San Nikolas elizan.

📍 Marzaako dorretxea / Armarria elizan / Katafalkoa




## Otxandio erre

Kanpoko eraginak Durangaldean izan zuen indarraren ondorio argigarria izan daiteke ekintza hura.

Muxika-Butroetarrak Aramaioko jauntxoak ziren. Eta dakigunez, Aramaio oso aberatsa zen basogintzan, nekazaritzan eta abeltzaintzan. Horrez gain, Aramaio eta Otxandio auzo-herriak ere baziren. Otxandio hiribildua, bestalde, Gaztelatik Bizkairako sarbide garrantzitsuetako bat zen. Oinaztarrek gotorleku tankerako dorretxe bat eraiki zuten bertan. Eta abendañotarrek ere laster eraiki zuten beste gotorleku bat.

1415ean Abendañok Muxika-Butroetarren etxea erre zuen. Muxika-Butroetarrak berehala joan ziren Otxandiora. Bi aurkariak bakoitza bere auzoan babestuta zeudela, Juan Lopez Ganboa iritsi zen Gipuzkoatik, ganboatarren gudaroste guztia zekarrela. Eta bidean, egun bateko atzerapenez, Migel Lopez Lazkao zetorren, oinaztarren gudaroste guztia zekarrela. Bizkaiko eta Gipuzkoako leinu indartsuenen arteko borroka latza zetorrela ematen zuen, baina ganboatarrak ez zuten nahi izan indarrak orekatzerik. Armen bidez ezingo zituztenez atera herritik, oinaztarrak iritsi baino lehen herriari sua eman eta hiltzea erabaki zuten ("que le pegasen fuego, e con el los sacarian e maturan antes que onesinos veniesen"). Erabaki eta egin. Ihesean Muxika-Butroeren 15 gizon hil zituzten. Alde egitea lortu zutenak herriaren kanpo aldeko mendixka batean ezkutatu ziren, lagunak iritsi arte. Baina ordu-rako ganboatarrak gotorlekuan babestuta zeuden ("*en su media villa e en una casa fuerte*"). Beraz, su-etena adostu, eta oinaztarrek alde egin zuten.



Itxura guztien arabera ez zen kiskali herri osoa, abendaño-tarren “*media villa*” zeritzona zutik baitzegoen. Hala ere, Otxandiokoa triskantza handia izan omen zen. Herritarrek ez zuten eskurik hartu, eta hiribildua kaltetuta geratu zen Bizkaiko bi leinu handien arteko borrokaren ondorioz.

Argitu behar da ganboatarrak ez zutela Otxandio barririk erre, 1451n Arrasateri ere sua eman baitzioten. Arrasaten helburu berdina lortu nahi zuten: Muxika-Butroetarrak irtenaraztea. Arrasaten unzuetairek eta zaldibartarrak ere esku hartu zuten, emaitza 10 hildako izan zelarik.

## Gipuzkoako oinaztarren erronka

1425ean Durangoko ganboatarrak razzia bat egin zuten Gipuzkoako lurraldean. Harrigarria bada ere, urrundu egin ziren euren ohiko eremutik. Martzaatarrak Sante Trian mendatera (Zegamako San Adrian ote da?) iritsi ziren; ibarratarrek, etxaburutarrek eta Durangoko herritarrek lagun-durik. Su-etena izan arren (bakealdia adostuta), erasoia jo eta borrokan aritu ziren Lazkaoko eta Igartzako leinueta ahaide nagusien aurka, oinaztarren leinuko Gipuzkoako buruzagiak hiltzeko asmoz alegia. Nahiz eta helbururik lortu ez, ahaide batzuen atzetik ibili ziren segika, eta bide batez mandazainei urrezko 500 florinen balioa lapurtu zieten.

Handik urtebetera -tarte horretan florinen arazoa era baketsuan konpontzen saiatuko ziren seguruenik- Gipuzkoako oinaztarrek erronka bota zieten martzaatarrei, ibarratarrei eta etxaburutarrei. Horiei eta beste askori ere egin zieten deialdia: Martin Saez Iburgurenen oinordekoei, Durangoko hiribilduko herritarrei, morroiei, mandazainei, errotariei eta abarri.

*“e a todos sus parientes de las sus treguas dellos e de cada uno dellos, e a todos los escuderos que deçienden de la rodilla de don Martin Saes de Iburguren... e a todos los omnes que biven e moran en la dicha villa de Tavira de Durango, e (a) todos los paniaguados, asi mulateros como busteros e molineros, e a todos los que labran e labraren en sus heredades dellos e de cada uno dellos”.*


Ez dakigu erronka hark ondoriorik izan zuen ala ez. Ondorioak alde batera utzita ere, testua beste ideia batetatik ere bada interesgarria: leinuaren zabaltasun handia adierazten digulako.

Erronkak “Martin Saes de Iburgurenen belauneko zaindariak” aipatzen ditu. Izan ere, Durangaldeko familia

ganboatarrak guztiak ibargoentarrak adarrak omen ziren, leinu-sortzailearen belaunaren ondorengoak -*belaun* hitzak senidetza adierazten du euskaraz-. Era berean, erronka hura leinuko enparauentzat ere bazen, nahiz eta odoleko senideak ez izan: lehenengo morroiak, mandazainak, errotarriak eta abeltzainak; ondoren, menpeko baserritar guztiak. Kasu horretan ez zituen aipatu lekaioak. Gehienetan soldatapeko gaizkileak zirenez, beharbada ez zituzten lotuko leinuarekin.

Esan dugun bezala, leinuak kontrolatzen zituen inguruko ia biztanle guztiak aipatzen ditu zerrenda horrek. Jende gutxi geratzen zen ahaide nagusiaren agintetik kanpo. Erronka kontuan harturik, bilauak (hiribilduko biztanleak) ere bandokideen menpe zeuden nolabait (*“a todos los omnes que biven e moran en la dicha villa de Tavira de Durango”*).

 Muntzaratzko dorretxea, Abadiño.





## Bernako dorretxea bota

Bernako dorretxea Amorebieta-Etxanoko jurisdikzioan dago gaur egun antzinako Zornotzako merindadean; hala ere, garai hartan Durangoko merindadearen barruan zegoen. Bernatarrek guztirako gehiegikeriak egiten zituzten dorretxe haren inguruan; bai eskualdeko jendearen kaltetan, bai Durango eta Bilbo arteko errege-bidetik zihoazen bidaiariak izorratzeko.

Batzuetan lapurretan egiten zuten: abereak -bernatarrek eta euren lekaioek jateko, nahiz jabeei diru truke itzultzeko-, sagardoa, arropak eta abar. Beste batzuetan dirua eta beste gauza batzuk ere *“eskatzten”* zituzten, eta jendeak eman egiten zizkien kalte larriagoen beldurrez (*“les solian dar por quanto avian miedo que sy non les davan que mayores dafnos les vernian”*). Noizbehinka indarkeriara jotzen zuten. Behin, esate baterako, herritar bat bi kaparen artean sartu eta kolpatu egin zuten (*“le dieron buenos cocorrones e coçes”*). Beste batzuetan amorruz jokatzeko zutela ere ematen du, adarjotze negargarriak eginez: gurdietan eta kupeletan zekarten sagardoa indarrez kentzen zieten, eta ondoren urez betetzen zizkieten barririk (*“le finchian las dichas pipas de agua”*).

Baina ez hori bakarrik. Inoiz *“gehiago balio”* duten gizonen harrokeriaz ere jokatu zuten. Behin Fernando Bernak -leinuaren ahaide nagusiak- marabediak eskatu zizkion emakume bati. Emakumeak 7 maraiko eskaini zizkionean, Fernandok berak ez zuela 7 maraiko balio aurpegiaratu zion. Emakumeari kolpe batzuk jo ondoren, emakumeak 10 maraikora igo zuen *“oparia”*.

Bernatarren menpeko eremuan herritarrei eta bidaiariei egindako gehiegikeriak zirela eta, beldurra zabaldu zen. Ondorioz, durangarrak Bilbora joaten zirenean, ez



 Bernako dorretxea gaur egun.

ziren joaten errege-bidetik, Arratiatik eta beste bide batzuetatik baino, nahiz eta Berna inguratzeko ibilbidea bi edo hiru legua luzatu (*“avian de yr a la dicha villa de Viluao non osavan yr por el camino real por estar ende la casa, e solianse yr por Arratia e por otras partes rodeando dos o tres leguas por cada ves”*).

Inor ez zen ausartzen leinuari salaketarik jartzen eta aurre egiten. Justiziak ere ez zuen egiten ofizioz, garai hartako justizia oso lasai -edo agian gainezka eginda- zegoelako.

Baina antza denez, bernatarrek muga guztiak gainditu zituzten Gasteizko eskribau bat hil zuten egunean. Ez dakigu zergatik hil zuten, baina ekintza hark korrejido-rea esnatu zuela ematen du, dorretxea goitiki behera botatzea erabaki zuelako.

Beraz, 1445eko uztailaren 20an, durangarrek -Abendañoren laguntzaz- bota egin zuten Bernako dorretxea.

## Elorrioko borroka

1468an gertakari batek Durangaldeko indar-oreka aldatu egin zuen. Lope Gartzia Salazarrek dioenez (kronikalaria ez ezik bandokidea ere bazen), Pedro Ruiz Ibarra beste taldearen alde jarri zen, nahiz eta ordura arte durangarra -ganboatarra- izan (*“que era de los mejores de Durango, entró en treguas de los Zaldibar”*).

Elorrioko ganboatarren ez zuten onartu erabaki hura, eta etengabe erasotzen zieten ibarratarrei eta euren adiskide berriei. Orduan, Muxika-Butroeko leinukoek gizon batzuk bidali zituzten laguntzeko. Arerioak (abendañotarrek) berehala erantzun zuten, hiribildura 1.350 gizon bidaliz. Talde hark kanoi batzuk ere bazekartzan. Ibarretarren dorretxean ezkatutako 150 gizoni erasotzeko erabili zituzten kanoiak. Ondoren, Muxika-Butroetarrek heldu ziren, Bizkaia guztian 4.000 gudaritik gora batu eta gero.



 Bonbarda.



 Marzaako dorretxea.

Muxika-Butroetarrek Elorriora joan ziren, kanoi eta guzti, setiatzeko asmoz. Gudaroste gehiena atzealdean geratu zen, baina 600 gizonen osaturiko taldeak aurrea hartu, kanpalekua jarri eta artilleria prestatu zuen. Une hartan ezohiko zerbait gertatu zen (*“no saviendo si fue por trayçion o por misterio de Dios”*): atzealdeko 3.500 gizonen ospa egin zuten, nahiz eta hiribilduaren kanpo aldean areriorik ikusi ez, eta euren aurka inork erasorik egin ez. Elorriarrek harresitik ikusi zuten talde handia ihes zihoala. Berehala ekin zioten erasoari, eta prestaketa-lanetan zebilen talde txikia ustekabean harrapatu zuten (*“que desto no savian ni vian nada”*).

Borroka ondorioz 265 oinaztar hil zituzten eta ibarratarren etxeaz ez ezik, kanoi ere jabetu ziren (*“e tomaron la casa de Ybarra, e las lombardas, e todas las armas que dexaron”*). Ganboatarren taldean ez dakigu zenbat hildako izan ziren. Dena dela, garrantziko garaipena izan zen abendañotarrentzat eta euren laguntzat.

Egia esan, aipatutako zenbakiak ezin ditugu estu-estu hartu. Puztutakoak direla pentsatu behar da, gertakariaren garrantzia adierazteko kopuru handiagoak direla -garai hartan jokabide hori ohikoa zen-. Kopuruaren fidagarritasuna gorabehera, Elorrioko borroka leinuen mugitzeko gaitasuna eta leinuen hedapena agerian uzten ditu. Elorriokoa, bandoen arteko borroka nagusietakobat izanik, butroetarrek Enkarterriko, Uribeko, Busturiako eta beste toki batzuetako gizonen laguntasuna izan zuten.

Elorrioko borrokaren ondoren egoera ez zen askorik aldatu. Bi bandoek elkarren aurka jarraitu zuten. Ibarretarrak izan ziren kaltetuenak -dorretxerik gabe geratu ziren-; hala ere, San Agustineko eta Elorrioko Sortzez Garbiaren Basilikako hamarrenei esker, laster egin zuten aurrera.



Elorrioko borroka. Iturri Kultur Etxea.



Plaka, Elorrioko Elizburu kalean.

*“En el año de 1524 día domingo y de mayo 8 por la vuelta de la pascua paciguó lo exceso Juan Gómez y Perez”*



📖 "Ofiartzarrak eta ganboatarrak bakea adosten Gonzalo Moro korrejidorearen aurrean". Jose Etxenagusia Errazkin.

Nahiz eta guk lortutako datuak denboran barreiatuta egon, bandokideek agiritan agertzen jarraitu zuten noizbehinka. 1.486an Fernando Perez Zalbibarri bandoak eratu izana leporatu zioten; 1.492an berriztarrrek Juan Martinez Zaldibar zigortzea eskatu zuten; 1.498an martaatarrak egiten ari ziren dorretxeari buruzko ikerketa agindu zuten; eta abar.

Dena dela, gauzak aldatzen hasita zeuden. 1.474an Errege Katolikoak agintean jarritz, bandoen arteko gerraren amaieraren hazia erein zuten. Erregeen bake-politikan gorabeherak izan ziren eta kasuan kasuko egoerek baldintzaten zuten. Hala eta guztiz ere,

politika hark leinuen eta ahaide nagusien indarkeria mugatzea zuen helburu.

Edonola ere, erregeen politikak ez zuen arrakastarik izango, baldin eta aldeko egoera ekonomikorik izan ez balitz. Atlantikoan merkataritza indarberritu egin zen, burdin-eskaria areagotu, laborantza-lurra ugaritu, biztanle kopurua handitu, eta abar. Krisialdia ahulduz joan zen. Aurrerantzean nobleziak ez zion indarkeriari heldu aberasteko asmoz. Horrela amaitu ziren bandoen arteko gerrak.

### **Juan Manuel González Cenbellín**

Director Técnico del Museo Diocesano de Arte Sacro



---

# IZURTZA

## UDALA

---

[www.izurtza.net](http://www.izurtza.net)

94 681 35 48



Bilbao Bizkaia  
Kameraldea / Cámara de Comercio  
*Pedro M<sup>o</sup> Urdarín*  
Consejo Internacional  
de Cuentas de Bilbao Bizkaia

# GALA LIRIKOA

2013 / 11 / 19  
TEATRO ARRIAGA ANTZOKIA  
20:00



BILBAO-BIZKAIA NAZIOARTEKO KANTU LEHIAKETAK ALFIRKEZTEN DU:  
XIV. EDIZIOAREN IRABAZLEEN GALA LIRIKOA

CONCURSO INTERNACIONAL DE CANTO BILBAO-BIZKAIA PRESENTA:  
GALA DE GANADORAS Y GANADORES DE LA XIV EDICIÓN




Bilbao Foru  
Auzundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

# udazkeneko kontzertuak



2013

# AQUELLOS MARAVILLOSOS 'SANANTONIOS'



---

TESTUA: **JUAN A. HERNÁNDEZ**

FOTOS: **INDALECIO OJANGUREN, RICARDO DOLIWA, TXELU ANGOITIA**

---



Cuentan los mayores que todos los años por el 13 de Junio, día de San Antonio de Padua, gentes de toda Euskal Herria vestían sus mejores galas y se acercaban en tren, autobús, en carreta o caminando hasta lo alto de Urkiola. Allí, miles de personas pasaban el día y rendían devoción al santo, muchos después de haber pasado la noche al raso. Sus recuerdos alcanzan hasta los días previos a la Guerra Civil y se detienen con especial cariño en los años posteriores a la contienda, las décadas de escasez en las que tal jornada servía para romper la dura rutina de la época.



Para cuando el calendario señalaba la cercanía de aquel día, los cerezos de Mañaria ya habían dado sus frutos, que recordaban el final de los días fríos y la cercanía del verano. Los días previos al día de San Antonio ya se percibía el trajín de gentes. Eran, entre otros, músicos (sobre todo trikitilaris) que llegaban a la estación de tren de Durango y montaban sus instrumentos en los autobuses de la empresa Hijos de Andrés Zugaza S.L., popularmente conocidos como los autobuses del Garaje Moreno, que de ruta hacia Vitoria-Gasteiz les dejaban en lo alto del puerto, preparados para amenizar la jornada de los peregrinos al día siguiente. Les aguardaba una noche en la que dormirían sin más techo que las estrellas, eso siempre que las nubes y la lluvia les dejaran ver el cielo.

Al día siguiente, las habitualmente tranquilas calles de la localidad (punto de partida obligado para muchos de los transportes que llevaban a los visitantes) se convertían en un hervidero de gentes. "¡San Antonio era el acabose!", enfatiza el durangués Leopoldo Zugaza, 81 años de memoria viva, que trabajó en la empresa familiar de autobuses junto a sus hermanos, algo que le convierte en testigo privilegiado de lo que ocurría en aquellas jornadas.

De todos los puntos de Bizkaia y Gipuzkoa llegaban aquellos visitantes que nunca faltaban a la cita con el santo, protector también de los novios y enamorados que buscan pareja o que el santo les conserve la que tiene. "Recuerdo sobre todo a los gipuzkoanos, muchos caseros de cierta edad, vestidos con blusa corta





como de seda negra muy elegante. La devoción a San Antonio era terrible. Eran miles y miles de personas las que venían”, rememora Zugaza. Mientras, por el otro lado del puerto, navarros y alaveses principalmente llegaban a través de Otxandio. “San Antonio siempre ha estado más metido en Gipuzkoa y hoy en día diría también que seis de cada diez de los que vienen son guipuzcoanos”, confirma Joseba Lejarza, párroco del santuario de Urkiola desde 1970.

Poco a poco, unos a pie, otros en autobús (el billete costaba un duro y subió a lo largo de los años hasta casi las 15 pesetas) iban llegando a lo alto del puerto. Allí, en la cima, los visitantes se mezclaban con lisiados que alineados desde el borde del antiguo camino hasta la entrada del santuario apelaban a la caridad cristiana de los recién llegados. Corrían leyendas negras sobre personas que llegaban a mutilar

a sus hijos cuando éstos eran niños para ablandar las conciencias de las gentes piadosas. Si bien desde la distancia resulta imposible conocer el grado de veracidad de aquellos rumores, lo cierto es que con el paso de los años su presencia se prohibió y dejaron de verse en la cita de Urkiola.

La música de la trikitixa sonaba desde estrados instalados a tal efecto sobre los que los músicos hacían sonar sus instrumentos. Quizás eran esos los momentos en que los amigos de lo ajeno aprovechaban para arrebatar la bolsa a los más incautos, ya que, aunque más de uno pueda pensar que los robos son cosa de nuestros días, los carteristas ya proliferaban en aquellos años, ejerciendo su oficio en juego del gato y el ratón con parejas de uniformados de la Guardia Civil. Muchos de ellos acababan la jornada esposados y camino del cuartelillo de Durango en los



mismos autobuses que traían a los peregrinos. “Todavía recuerdo la cara de alguno de ellos subiendo al autobús y el guardia civil diciéndome. ¡Pero cóbrele! Y yo pensaba, pero cómo le voy a cobrar al pobre hombre, que bastante tiene ya con lo que le viene encima. Recuerdo la cara del pobre hombre como pensando ¿encima me cobrará?”, añade el que fuera uno de los responsables de aquella línea de transportes. Poco a poco y con el paso de los años, cada vez más visitantes empezaron a llegar en autos particulares, aunque más de uno se recalentara y acabara el trayecto arrastrado por los bueyes de alguna de las familias que vivían en el lugar.

En medio de aquella multitud, muchas mujeres se dedicaban a otro oficio bastante más honrado que el de aquellos amigos de lo ajeno. Eran vendedoras de imágenes de hojalata del santo, muy reclamadas por el público. A pesar de lo aparentemente inofensivo de su actividad, muchas también veían su mercancía requisada y debían volver a casa con los bolsillos vacíos cuando los omnipresentes vigilantes del orden comprobaban que las figuras iban ataviadas con los

siempre sospechosos colores rojo, verde y blanco de la ikurriña. Eran tiempos en blanco y negro en los que una nota de color como esa suponía un desafío intolerable.

La feria de ganado tampoco fallaba a su cita con San Antonio. Así, animales y baserritarras se reunían en la parte trasera del santuario. Junto a ellos, vendedores ambulantes mostraban sus mejores mercancías: azadas, hoces y todo tipo de utensilios para el trabajo en el campo.

Tradición, fiesta y devoción eran uno, aunque este último aspecto era el que predominaba claramente sobre los demás. "Era más devoto que romería. Era una gran masa de gente que iba a la Iglesia y hacían

sus rogativas", afirma el también durangués Carmelo Fondado, nacido en 1921 y recién renovado su carné de conducir ("aunque me han dicho que no conduzca más de una hora u hora y media", confiesa). "Algunos hacían la tontería de dar vueltas a la piedra, pero eran los menos", añade con firmeza.

Ya en la siempre abarrotada iglesia, el pasillo central dividía los bancos situados a la derecha, donde el letrero 'andrak' indicaba dónde debían sentarse las mujeres. Otro cartel guiaba a los varones al lado que les correspondía dentro del templo.

A pesar de la separación dentro del templo, San Antonio fue reforzando con los años su fama de santo casamentero, a quien mozos y mozas casaderos pe-





dían por un buen novio o novia. Para ello, se fueron asentando los ritos que han llegado hasta nuestros días: dar vueltas a la piedra férrica (el 'meteorito', según la tradición popular) situado en el exterior del Santuario, pero también elegir el color de pelo del futuro consorte portando agujas con la cabeza de color negro o blanco ya fuera moreno o rubio respectivamente el pretendiente favorito. Algunas de aquellas agujas acababan clavadas en el cordón y las sandalias de la figura de San Antonio en el interior de la capilla del santuario. "Hay que tener en cuenta que nuestros "baserritarras" salían muy poco a la calle, igual el domingo para ir a misa o a alguna romería", explica Lejarza, "por eso romerías tan importantes como esta eran un buen lugar para que los chicos y las chicas se conocieran".

No siempre hacía sol, no hay nadie que garantice que San Antonio tenga entre sus bondades conservar a la pareja amada o encontrar un buen novio, pero unas cuantas décadas después miles de personas llegan a lo alto de Urkiola cada 13 de junio fieles a su cita anual, si bien en mejores coches y por una carretera asfaltada y sin baches. Las cosas han cambiado mucho pero la tradición se mantiene. Tal vez, dentro de cuarenta o cincuenta años alguien tendrá que contar cómo fueron aquellos maravillosos 'sanantónios'.



# UNA GRAN FIESTA SIN 'MÚSICA EXÓTICA'

Cuentan los mayores que todos los años por el 13 de Junio, día de San Antonio de Padua, gentes de toda Euskal Herria vestían sus mejores galas y se acercaban en tren, autobús, en carreta o caminando hasta lo alto de Urkiola. Allí, miles de personas pasaban el día y rendían devoción al santo, muchos después de haber pasado la noche al raso. Sus recuerdos alcanzan hasta los días previos a la Guerra Civil y se detienen con especial cariño en los años posteriores a la contienda, las décadas de escasez en las que tal jornada servía para romper la dura rutina de la época.

Durango se benefició durante años del aluvión de personas que cada 13 de junio acudían a la cita con San Antonio en Urkiola. Nudo de comunicaciones y paso obligado para gran parte de ellos camino de la romería, la localidad acogía una gran feria llena de atracciones que los mayores recuerdan aún con nostalgia.

El epicentro de la fiesta era el parque de Ezkurdi, muy diferente entonces al que conocemos hoy en día, ubicado entre la estación de tren y la carretera que unía la localidad con Vitoria-Gasteiz. En ese espacio se concentraba una gran variedad de personajes entre los que había músicos, barraqueros y charlatanes. Junto a ellos, miles de parroquianos y forasteros dispuestos a pasar un día diferente.



Fotos: Ricardo Doliwa



Quienes conocieron aquel ambiente en los años 50 del pasado siglo guardan un buen recuerdo de un vendedor ambulante llamado León Salvador, que trabajaba habitualmente en la Plaza de Zabalburu de Bilbao y cada año a mediados de junio nunca fallaba a su cita duranguesa, siempre bajo una fila de tilos junto al espacio de la actual fuente. Subido a una tarima y con un cartel de hule raído por único atrezzo, portaba en su maleta diversos y muy demandados productos, aunque los más apreciados eran las hojas de afeitar marca 'Piel Roja', rivales de las locales 'Palmera' (locales porque la factoría que las producía estaba en Durango).

Del citado Salvador destacan quienes le vieron en acción su porte distinguido y elegancia a la hora de vender. "Era muy buen charlatán", afirma el durangués Carmelo Fondado. "Era un caballero. Vendía medallas de plata, carteras de 'boxcal' y hojas de afeitar marca 'Piel Roja', que era su marca", precisa en un nuevo alarde de memoria Leopoldo Zugaza, "había gente que decía que las mejores hojas de afeitar eran aquellas".

Entre las atracciones recreativas figuraba la caseta de la familia Liendo que ofrecía el del tiro al 'flower', juego basado en un chorro de agua vertical sobre el

que se sostenía un corcho que había que disparar con una escopeta de aire comprimido. Pero tampoco faltaba 'El oráculo de Salomón', "donde metías una moneda y te daba un papel con tu porvenir", según detalla Zugaza. Junto a él, tómbolas que rifaban, cacerolas y jamones.

Capítulo aparte merece la ambientación musical de la fiesta. Las familias acostumbraban a sentarse en las terrazas de alguno de los establecimientos hosteleros de la zona, como los cafés Lapiko, La Paz y y Ezkurdi, los bares Moderno y Bikandi o el hotel Miota. Allí sonaban los sonos de las orquestinas, conjuntos de cuatro o cinco músicos que tocaban el clarinete, el acordeón y algún instrumento de percusión; y también los de la Banda de Música, una respetada institución que tuvo componentes de gran calidad artística.

Sin embargo, la moralidad y las leyes de la época limitaban el repertorio de los músicos, censurando los estilos musicales que ya estaban naciendo en Norteamérica, al otro lado del Atlántico. Así, tal como recogía el programa editado por el Ayuntamiento, tenían prohibido tocar "el jazz-band por música exótica y extravagante". La prohibición, por supuesto, se cumplía.



**Juan A. Hernández**

Periodista



# **KIROLENE**

KIROL IRAKASKUNTZEN ESKOLA

**Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe Publikoa**  
**Centro Público de Enseñanzas Deportivas**



**Titulazio Ofizialak Titulaciones Oficiales**

Saskibaloia *Baloncesto*

Eskubaloia *Balónmano*

Futbola eta areto futbola *Fútbol y fútbol sala*

Atletismoa *Atletismo*

Mendikirolak eta eskalada *Deportes de montaña y escalada*

Neguko kirolak *Deportes de invierno*

...eta abar etc...

San Inazio Auzunea, 5. • 48200 DURANGO • BIZKAIA

Tel. 946 811 119 • Fax. 946 030 668

info@kirolene.net • www.kirolene.net



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAIA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

10 URTE KULTURAREN ALDE



Abadiño

Elizateko Udala



Kultura Arloa  
Área de Cultura



100 URTE HISTORIAN

UDAL MEDIA TEKA 2003-2013

ZELETABE JAUREGIA 1913-2013

1913

AUZO-ELKARTEEN

# BORROKAK

Durangoko inguruei nortasuna  
eman zieten auzuneak

---

TESTUA: RAKEL CALVO

ARGAZKIAK: HERRIA ELKARTEAREN ARTXIBOA



HAUZO ELKARTEA  
HERRIA  
ASOCIACION DE VECINOS

Durangoko biztanleria ikaragarri hazi zen joan zen mendearen erdialdean. Jendetza hura "etxe merkeetan" ("casas baratas" deritzen auzoetan) jarri zen bizitzen, eta auzo horietan sortu ziren auzo-mugimenduen borrokek herriaren beraren bizimodua baldintzatu zuten.

Hiriaren hazkundeak Durangoko hiru langile-auzoak irensteko asmoa zuela zirudien. Gaur egun ekialdean eta mendebaldean lanean dabilzan garabiek medikuntza-orratzen antzera lan egiten dute, San Fausto eta Matadero auzuneen eta herriaren erdigunearen arteko hutsuneak (garai batean nabarmenagoak zirenak) txikituz. Bi

auzo horietara hurbildu baino lehen, asfaltoak Juan de Itziar auzoa urrupatu zuen. Gaur egun asfaltoak eta adreiluak ia herri osoa jan dutela esatea zilegi da.

Frankoren erregimeneko Etxegintza Sindikatuaren Eki-menak auzune horiek lokatzetan eraiki zituen garaian, orain dela hirurogei urte ia, egoera desberdina zen. Aspaldi Juan de Itziarren bizi zen Juanjo Lopezek dionez, "auzoan lokatza besterik ez zegoen". Lopezek ez ezik, beste auzokide guztiek ere berdintsu deskribatzen dute auzunea. Herriko industria indartsuak erakarrita etorri ziren auzotarrak 50eko hamarkadan, eta lehentxeago langileriarentzat eraikitako etxe-blokeetan kokatu ziren.

1960an Durangoko herritarren erdia baino gehiago herritik kanpo jaiotakoak ziren. Hori bera dio Nerea Mujikak bere doktoretza-tesian (*Durangoren eta eskualdearen iragan hurbila* (1960-1991)). Horrek argi uzten du biztanleriak gorakada handia izan zuela oso urte gutxian, eskualdeko herriek baino askoz handiagoa. Biztanle berrien artean, bostetik hiru Euskal Herriko beste herri batzuetatik etorri ziren; eta beste biak Gaztela-Leonetik, Andaluziatik edo Extremaduratik gehienetan.

Mujikaren esanetan "Durangon, industria-guneetatik hurbil zeuden kanpoaldeko auzuneetan eta 50eko hamarkadaren amaieran eraikitako auzuneetan kanpota-







rren kopurua handiagoa zen. Auzo horien artean honako hauek nabarmendu ziren: San Fausto (%45,13), Erretentxu (%27,90), Askatasun Etorbidea-San Roke (%22,20) eta Landako (%22,08). Betiko auzuneetan (Ezkurdi, Madalena, Tabira-Pinondo...) etorkin kopurua ez zen igo %15etik gora”.

Aipatutako auzuneak erdigunetik urrun zeuden, eta zerbitzuetatik nahiz erosotasunetatik ere urrun jakina. Auzotarrek gogoan dute “ez zegoela argindarrik, urik eta isurbiderik”. Kontrolik gabeko zabortegeiek eta estolderien gabeziak nabarmen baldintzatzen zuten auzotarren bizimodua. Angel Longarte, ‘Gela’, *Herria* auzo-elkarteko kidea da eta bere iritziz “*Obraren* helburuetako bat langileria herriaren erdigunetik urrun-tzea izan zen”.

Matadero auzunean sortutako auzo-mugimenduari *Herria* izena ipini zioten (mugen arabera, auzoari beste izen batzuk ere ematen dizkiote: San Roke, Zabalarra, Aromotz eta abar). “Etxe merkeetako” seme-alabek gazte-gaztetatik izan zuten tarte banatzaile hura gainditzeko

premia, praka motxak jantzita zebiltzanetik ia-ia. Eta premia hark bultzatuta, auzotarrak mobilizatzen hasi ziren.

Distantzia hura bizimoduari erreparatuz ere antzematen zen. Mataderoa zabortegei baten barrenean kokaturik zegoen. Udalak 1973an erabaki zuen zabortegei hura toki hartan jartzea, eskualdeko hondakin guztiak bertan pilatzeko. Zaborra, lantegiak, fundizioak eta San Roke erreka (auzoko ur zikinak bertara isurtzen zituzten) auzoaren inguruan zeudela kontuan harturik, arratoiak jaun eta jabe ziren. Auzunea txikia zen. Han eta hemen eraikitako baserrietan ez ziren 100 lagun ere biziko, eta gero “*Obraren* etxeetan 128 familia bizi ziren, gehienak seme-alaba ugaridunak”. Gogoeta hori egin du Periko Arevalok, Herriako presidentea.

Baldintza kaxkar haiek zirela eta, auzotarren arteko elkartasuna arau bilakatu zen. “Ateak beti egoten ziren zabalik. Auzoa zenbat eta txikiagoa izan, hartu-eman orduan eta handiagoa izaten da. Auzoko kontu guztiak jakiten genituen. Haurrok edonoren etxera joaten ginen merienda jatera, emakumeak kartetan



egitera eta abar. Gaur egun ez dago haren lorratzik”, aitortu digu penaturik Arevalok. Elkartasuna handia izan arren, ez zuten aukerarik kaleak eta argindarra konpontzeko.

Halako batean gazteak martxan jarri ziren eta zabarra ateratzea erabaki zuten. Orduan Udalean agintean zeudenen muturren aurrean ipini zituzten hondakinak. Karrozak, astoak, euli erraldoiak... Ekintza hark oihartzun handia izan zuenez, zabortegia itxi eta *Herria* auzo-elkartea legezatu egin zuten. Horrez gain, lursail bat eman zioten. Toki hartan “Txabola” eraikitzeko aukera izan zuten (taberna irekitzeko baimen eta guzti). Oraindik bizirik jarraitzen duen taberna haren ondorengoak egonkortasun ekonomikoa ematen dio taldeari.

Durango gero eta handiagoa zenez, premia berriak sortu ziren. Longartek gogoratu duenez, “70. eta 87. urteen artean gertatu ziren auzoko borroka nagusiak”. Borroka batzuetan eurak izan ziren garaile, San Rokeko ikastetxea eraiki eta saiheSBidea desbideratzerako orduan esate baterako. SaiheSBidearen kasuan, lehenengo proiektuak auzoa herritik kanpo uzteko asmoa zuen. “Udalaren eta Diputazioaren aurka borroka oso gogorra egin genuen ibilbidea aldatzeko”, diote Arevalok eta Longartek.

Beste eskaera batzuek ez zuten amaiera onik izan. Arevalok egun ilun bat dakar gogora: atxilotu eta buruan ebaki bat egin ziotenekoa. Kontua da, San Roke ikastetxeko jolastokiari zati bat jan nahi ziotela etxebizitzak egiteko, eta auzotarrek berriro ere aurre egitea erabaki zutela. “Lanak geratzeko asmoz sartu ginen ikastetxeko patiora eta han Ertzantzarekin liskarrak izan genituen. Lau lagun atxilotu zituzten”. Orduan adreiluaren indarra gailendu zen. “Beste borrokarik sekula ez dugu galdu”, dio Gelak.

Auzo-mugimendua 70eko hamarkadan sortu zen Durangon, politika eta kultura bor-bor zeuden unean. Garai berriek eragin handia izan zuten *Herria* eta beste talde batzuetan ere bai. Longartek eta Arevalok aitortzen dutenez, “gazteok bultzatzen genuen gurdia, baina nagusitxoagoek bideratzen gintuzten pixka bat. Taldearen inguruan alderdi komunistako kideak zebiltzan, klandestinitatean zebilen jendea”. Longarteren esanetan, “kontzientziak esnarazi nahi genituen. Sakoneko arazoa nolakoa zen bagenekien. Auzoko arazoak konpontzea nahi genuen, bai; baina jendea mugiaraztea nahi genuen. Arrisku bizian geunden”.





Gauzak horrela, borroka ez zen mugatzen hirigintzara. “Durangok diktadura garaian herentzian jasotako kultura eta zerbitzu hutsunea betetzeko premia” ere bazegoen. *Herriak* udalekuak, zinema-zikloak eta musika-jaialdi ugari ere antolatu zituen. “Kantagintzaren bidez salaketak egiten zebiltzan artistak ekartzen genituen, kanpoko jendea. Hala nola: Pablo Milanes, Maria del Mar Bonet eta Llach; baina Benito Lertxundi, Oskorri, Mikel Laboa eta Joseba Etxebarria ere ekarri genituen”, diosku Gelak. Garai hartako gertakari asko gogoratzen dituzte, Imanol kantariari buruzko bat adibidez: Joseba Sarrionandia poeta iurretarrak kartzelatik ospa egiteko erabili zituen bafle ospetsuak Herriari oparitu nahi zizkiela.



Astarloa zineman, frontoian eta Azokan egiten zituzten jaialdietara jende asko joaten zen. Dena dela, ospe handiko jendea ekartzeak ez zuen esan nahi arrakasta ziur lortuko zutenik. “Batzuetan diru asko batzen genuen, baina beste batzuetan zorretan itota geratzen ginen, boikota egiten zigutelako”. “Gorri” ospea zela eta, behin baino gehiagotan izan zituzten liskarrak Durangoko beste talde batzuekin, batez ere abertzaleekin. Behin ikastolarako dirua eman nahi izan zuten eta euren diruari uko egin zioten. “Gaur egun jende hark aintzat hartzen gaitu, eta lan ugari egin genuela ere aitortzen digute”.



*Herria* Durangoko auzo-elkarterik zaharrena da. 400 bazkide inguru dauzka. “Hasieran auzo-elkarte bakarra ginen”, diosku Gelak. “San Fausto n gizarte-zentro bat zegoen. Ondoren, Juan de Itziarreako eta lurretakoa sortu ziren (desanexioa zela eta). Gero beste bat sortu zen Madalena inguruan, putetxe bat jartzea ekiditeko. Baina denbora gutxiren buruan desagertu egin zen”.

San Fausto izan zen auzunerik jendetsuena. Auzoak zentro sozialaren eta Bizente Zabalera parrokoaren inguruan egiten zuen bizimodua (eta Zabalaren bitartez, parrokiaren inguruan zebiltzan taldeetan). “Gauza batzuk lortu zituen: zentro soziala, polikiroldegia, futbito-txapelketak eta abar”.



Lorraz horrek 2004. urtera arte iraun zuen behintzat. Izan ere, urte hartan Euskal Herriko Unibertsitateko ikerlari batzuek ("Parte Hartuz Estudios sobre Democracia Participativa" zeritzon masterreko ikerlariek) honako lau hau argitaratu zuten: "Durangoko errealitate sozialari buruzko diagnostiko parte-hartzailea".

Azterketa hartan herriko elkarte-egituraren aberastasuna, ugaritasuna eta aniztasuna nabarmendu zuten; era berean, ikerketak azpimarratu zuenez, taldeak elkarrengandik isolatuta zeuden. Txostenean herriko eragileen arteko harremanak azaldu zituzten diagrama argigarri baten bidez. Mapa horretan *Herria* Alde Zaharreko auzo-elkarteari zuzen loturik ageri zen (DAZ une hartan bertan sortu zen); Juan de Itziar, ordea, isolatuta zegoen.

Larrasoloetako auzo-elkartea ahulduz joan zen apurka-apurka, desagertzeraino ia-ia. Dena dela, hasieran

("frankismoaren amaieran eta frankismoaren ondoren") oso elkarte bizia izan zen. "Jende gazteak sortu zuten. Egonezina genuen eta gauzak aldatu nahi genituen, gure bizimodua eta enparauena ere bai. Langile-auzoan bizi ginen, Juan de Itziarren. Gerora ingurura zabaltzen ahalegindu ginen", diosku Juanjo Lopezek, sortzaileetako batek.

Lopezek esan digunez, ez omen zegoen aurrez erabakitako helbururik, gauzak etorri ahala bilatzen zituzten irtenbideak. "Unean uneko gauzak egiten genituen; gure ekimenak nahiz beste premia batzuei erantzunez jokatzeko genuen". Ildo horretatik, ekologistekin bat egin zuten nuklearren aurkako martxetan, manifestazioak egin zituzten auzoan hobekuntzak egiteko eta abar. "Gaur egun luxuzko auzunea da; erdigunetik gertu txaletxoak dauzka. Baina garai hartan kanposantura *bidekoak* ginen".



Gaur egun Durangotik kanpo bizi den aspaldiko militante horren iritziz, NATOri EZ esateko egin zuten mobilizazioa izango zen agian lortutako arrakastarik handiena. “Elkartek eta Durangoko jendeak kausa bakar baten inguruan biltzen asmatu genuen”. Aldizkariak, tailerrak, mendi-irteerak... Elkartek bizirik iraun zuen artean, kultur-ekitaldi ugari eratu zituen, beti ere agintarien menpekotasunik gabe. “Ondo konpontzen ginen beste elkarte batzuekin, elkarri laguntzen genion”, dio Lopezek. “San Rokekoekin konponduko ginen ondoen beharbada. Udalarekin inoiz ez ginen ondo konpondu”.

Inguruetako auzoetako borrokek taxutu zuten Durango, eta gaur egun herria auzune horiek irensten ari da pixkanaka. “Ez dakit zer geratuko den. Ez dakit zerk egingo duen aurrera, apur batek ala guztiak”, hausnartu du Juanjo Lopezek. “Ordukotik zerbait badela pentsatu







nahi dut. Auzoan ez beharbada, baina bai parte hartu genuenon artean, han egon ginenon artean”.

Baliteke gurari horiek oso desbideratuta ez egotea. Batzuen eta besteen lehentasunak talka egiten ari dira berriro ere. “Etxe merkeek” premia bereziak daukate orain ere: igogailuak, berogailuak, gas-instalazioak, auzo-etxeak eta abar. Eta erakundeek ere aurre egin nahi diete arazo horiei.

Aldiberean, Juan de Itziarren eta San Fauston indarberritutako elkarteek hitza hartu dute euren eskakizunak ezagutzera emateko. “Kanposantura bidean” TAO gunea handiagoa egiteko eskatzen diote Udalari, etxe ondoko aparkaleku guztiak kanpotarrek harrapa ez dituzaten. San Fauston kexu dira estolden egoera dela eta; halaber, auzotarrek etxei arreta handiagoa eskaintzea ere eskatzen dute.

Garaiak eta borrokak aldatu egin dira. Hala ere, elkarte haiek irekitako bidea erreferentea da oraindik, mugarrira, inguruko bizi-baldintzak hobetzea merezi duela pentsatzen duten guztientzat, eta gertukoa hobetuz gizarte osoa suspertu nahi dutenentzat.

## ERDIGUNEKO AUZUNEA

Alde Zaharra Durangoko auzune ezohikoena izango da beharbada. Auzotarren ahotsa DAZ elkartearen bidez entzuten da. Andramariko elizpetik Santa Anara artean 1.000 lagun inguru biziko dira. Udaletxea erdibidean egon arren, Udalaren eta alde zaharreko herritarren arteko harremana ere ez da erraza izan.

90eko hamarkadan Durangoko kanpoaldea urbanizatu ondoren, Udalarekiko liskarrak gutxitu egin ziren. Urte aberats haietan gaueko aisialdiak eragindako zaratak eta zikinkeriak erakartzen zuten arreta. Kaleak eta *karkabak* ziren arretagune (bertan behera geratutako pasabide haiek, *karkabak* alegia, oztopoz beteta egotea arriskutsua zen herritarrentzat nahiz etxebizitzetarako).

“Lanean hasita geunden, baina Alde Zaharra peatonalizatzeko asmoa iragarri zutenean buru-belarri hasi ginen lanean”, diosku Jose Mari Arrillagak, DAZeko presidentea. Auzokoen zama-lanak mugatu nahi zituzten hasieran. Baimena goizerako bakarrik eman nahi zuten. Bertan bizi zen jendea haserretu egin zen. 900 sinaduratik gora lortu zituzten Udalaren plan hura geldiarazteko. Orduan hasitako tirabirek jarraipena izan dute, beste hainbat arazo dela eta: baldosa labainkorrak, larrialdi zerbitzuek Alde Zaharrean sartzeko zailtasunak, zaborrak pilotzeko eta biltzeko sistema, eta abar.

### Rakel Calvo

Kazetaria



Goi-mailako  
elikagaiak  
Alimentos de  
calidad superior

EUSKADI  BASQUE COUNTRY

# Itzuli Jatorrira

[www.euskolabel.net](http://www.euskolabel.net) | [www.euskolabeldenda.com](http://www.euskolabeldenda.com)



**hazi**

Landa eta itsas ingurunearen  
garapenerako Eusko  
Jaurtaritzaren Korporazioa

Corporación del Gobierno  
Vasco para el desarrollo  
del medio rural y marino

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

EKONOMIAREN GARAPEN  
ETA LEHIAKORTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO  
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

# ATXONDO



HIRURAK BAT  
50. URTEURRENA  
1962-2012

[www.atxondo.net](http://www.atxondo.net)





ТХАКС

# OLINA

## URTEKO ARDOA?

---

TESTUA: **URI ASTOLA**

ARGAZKIAK: **TXELU ANGOITIA / ARCHIVO**

---

Lurretik sortutako produktuen arteik batek behintzat bilakaera bikaina izan du, eta gaur egun erreferentea da gure gastronomian. Txakolinaz ari gara, jakina. Garai batean indarrrik gabeko ardo garratza iruditzen zitzaien jendeari, eta merkaturatu beharrean etxean edaten zuten; baina txakoligileen lan gogorrari esker, kalitatezko ardotzat onartzen dute gaur egun. Gainera, txakolinaren izen ona hobetuz doa egunetik egunera, eta Estatuko -nahiz atzerriko- merkatuan gero eta toki handiagoa lortzen ari da.



**T**xakolin gehienak ardo zuriak dira, gazteak, neurrizko graduaziodunak, oso usaintsuak, freskoak, eta garratzasun ederra eta berezia daukatena. Atlantiko isurialdeko ardogintzaren emaitza da, bertako nekazaritzaren eta klimatologiaren ondorioa, eguraldi epelaren eta hezearen fruitua. Ardo hau egiteko bertako mahatsak erabiltzen dituzte: Hondarribi zuria eta Hondarribi beltza. Mikel Garaizabal enologo elorriarrak horrela definitu du txakolina oraintsu argitaratutako liburu batean.

Baina noizkoa da txakolina? Erdi Aroko kroniketan “lurreko uztaren ardoa” esaldia ageri da idatzirik. “Chacolin” hitza XVI. mendean, 1520an, ageri da lehen aldiz Errenteriako agiri batean, Valladolideko kantzelaritzan dagoen agiri batean. Handik urte gutxira, 1556an, Hondarribiko dekretu batean honako esaldi hau ageri da idatzirik: “vinos de Rivadabias e de Navarra e chacolines de Vordeos e Rochela”. Beraz, Frantziako txakolinak ere aipatzen ditu. Ardo horien ezaugarriak honako hauek dira: iraupen laburra, berdetasuna eta, txakolinaren antzera, erraz galtzen direla alferrik.

Txakolina klima atlantiarreko tokietan egiten zen batez ere, Picos de Europatik Barbastro ingurura arte. Hiru motako ardoak izaten ziren: zuriak, gorriak eta beltzak. “Txakoli” hitza Sabino Aranak proposatu omen zuen XIX. mendearen amaieran. Azken ikerketak kontuan harturik, badirudi hitzaren jatorria Gaskoi hizkuntza dela.

*Efectos del chacoli*

 XX. Mende hasierako posta txartela.

## Jatorrizko deitura

1989an "Getariako txakolina" jatorrizko deiturak (gerora Gipuzkoako lurralde osora zabalduko zena) txakolinaren produkzioa eta ospea irauli egin zituen. 1994an "Bizkaiko txakolina" deitura agertu zen eta 2001ean "Arabako txakolina". 2.010eko azarotik aurrera arautu eta mugatu egin zen "txakolin" izenaren erabilera. Harrez gero, ofizialki, izenak Euskal Herriko ardoak izendatzeko baino ez du balio, beste lurralde batzuetako antzeko ardoak kanpoan utziz. Erakundeek, mahastiak eta upategiak aztertuz, ka-

litatearen oinarriak finkatu dituzte. Higieneak eta teknologia modernoak produktu ona bermatzen dute merkatuan. Kalitatetik abiatuz, txakolingile bakoitzak bere ezaugarrien baldintzapean lan egiten du: lur mota, mahastiaren kokapena, mikroklima, mahats mota, heldutasuna, mahastian lan egiteko era eta txakolina lantzeko modua. Horiek izango lirateke aldagaiak. Eta hain zuzen ere, hortik datoz txakolin bakoitzaren berezitasun nagusiak: zapoak eta usain aberatsak.







📍 Batzarra txakolinaren inguruan. Foto Germán.



📍 Txakolina egiten. Foto Germán.



 Orozketan mahatsa batzen.

Mahatsondoetan egiten den lana oinarritzkoa da kalitate handia lortzeko. Hainbat zeregin izaten da mahatsondoetan: izerdia eta ernamuina (begia) sortzen direnetik jarraipena egin, udaberriko loraldia zaindu (loreak ernaldtu eta fruitu bilakatzen dira), mahatsaren bolumenari eta koloreari kargu egin, harik eta uda-

ren amaieran, enologoak mahatsa biltzeko erabakia hartzen duen arte. Gero, udazkenean erori egiten da mahastietako orria eta neguan inausi egiten dituzte mahatsondoak.

Mahatsa bildu ondoren, ahalik eta azkarren sartu behar da upategira. Bertan hasten da prozesuaren bigarren zatia. Mahats-mordoei txortanak kendu, eta mahatsa prentsatu egiten dute muztioa ateratzeko. Ondoren, garbitu egiten da, lohia eta solidoak kenduz. Gero, muztioak irakin egiten du (altzairuzko andel edo depositu batean gehienetan). Ardo zuriaren kasuan astiro irakiten du. Jarraian, beste depositu batera isurtzen dute; hiru hilabetetik hiru hilabetera depositu aldaketa egiten dutelarik. Horixe izango litzateke, labor esanda, txakolina egiteko prozesua. Prozesuak lan eta garbitasun handia eskatzen du.





 Mahatsondoak San Andresen, Durango.

## Bizkaiko txakolina

Gipuzkoako eta Arabako txakolinen eta Bizkaikoen artean badago aldea. Hona hemen Gipuzkoakoen eta Arabakoek ezaugarriak: puntu karbonikoa, garratzasuna, arintasuna eta usain indartsua. Bizkaikoek nabardura aberatsagoak dituzte usainetan, gorputz sendoagoa eta graduazio handiagoa.

Bizkaiko txakolina egiteko mahastiak mendi barrenean egoten dira (400 metrotik behera), eguzki-begian eta ipar haizetik babestutako lekuetan. Mahats mota nagusiak Hondarribi Zuria eta Hondarribi Beltza dira. Dena dela, beste mahats mota batzuk ere onartzen dituzte, mahastoiaren %20a gainditu ezik. Hondarribi Zuri Xerriatua deritzona ere mugarik gabe onartzen dute.

Gaur egun (2012) Bizkaian 371 hektarea mahasti inguru daude, 235 txakolingile, 47 upategi, eta milioi eta erdi litrotik gora ekoizten dute. Gipuzkoan 402 hektarea inguru egongo dira, 2.200.000 litro ekoizten dutelarik. Araban (Aiarako eskualdean) 50 hektarea


daude, ekoizpena 80.000 litrokoa delarik.

Bizkaiko txakolinaren %98 ardo zuri gaztea da. Koloreari dagokionez larutik (hori argia) lasto-kolorera arteko ukituak dauzka; eta noizean behin ukitu berdexkak ere izaten ditu. Distiratsua eta gardena da. Zapore berezia dauka: garratxoa, gaztea eta orekatua. Urtearen eta egikeraren arabera, 11 gradutik 13 gradura arteko edaria izan ohi da.


Kalitatea Fundazioak kontrolatzen eta egiaztatzen du Bizkaiko Txakoliña jatorrizko deituraren barruko upategiek arauak zehatz eta zintzo betetzen dituztela. Gainera, dastaketa-batzorde batek (Batzorde Erregulatzaillearen menpekoa) zaporeak eta usainak ere kontrolatzen ditu.

Bizkaiko mahasti gehienak Uribe eskualdean (Zamudio, Derio eta inguruetan) eta Urdaibain (Busturia, Kortezubi eta abar) daude. Beste eskualde batzuetan ere badaude mahastiak, Enkarterrietan eta Durangaldean esate baterako, baina arloak txikiagoak dira.



 Txakolina egiten "Abadinobeaskoa" baserrian, 80. hamarkadan.



 "Bodega" baserria, Izurtza.



 "Txakoli" baserria.

## Txakolina durangaldean

Gure eskualdeko mahatsondoek ez dute sekula garrantzia handirik izan. Baserritar batzuek 1930eko hamarkadara arte gutxi gorabehera ekin zioten mahatsondoak lantzeari. Baserriko laboreetako bat zen, eta baserritar batzuek inguruko txakolindegi banakara saltzen zuten. Txakolindegi batzuk gogoangarriak dira oraindik: Arrokoa eta Marta, Abadiñon; Gaztañatza, Iurretan; eta Larrinagatxu, Durangon. Batez ere gazteria joaten zen txakolindegietara. Jendeak ondo pasatzeaz gain, era guztietako batzarrak ere egiten zituzten. Orduko txakolina gogorra zen edateko, eta hari laguntzeko, intxaurrak edo antzeko gauza arinak jaten zituzten.

Izurtzan aipagarria da Bodega baserria, etnografiaren aldetik interesgarria delako. Arana familiak eraiki zuen 1846an. Sotoan upategi ederra dauka. Bobeda tanke-

rako sabaia harlauzez eratuta dago. Baserri horretan mahatsondoak landu eta txakolina saltzen zuten. Txakolina gertuko baserri batean saltzen zuten Txakoli baserrian. Baserria Izurtzan egon arren, Durango-Urkiola errepidearen inguruan, Durangoko muga-mugan dago.

Txakolingintza urteetan bertan behera utzita egon ondoren, 1.985ean suspertzen hasi zen. Txaro Larrinaga iurretarrak eta Bikandi durangarrak mahatsondo-landare batzuk ekarri zituzten Kataluniatik. Hasiera ez zen izan oso itxaropentsuan, baina temati ekinez eta lana gogor egin ondoren, proiektuak aurrera egin zuten. Aipatutako bi txakolingileez gain, beste batzuek ere landatu zituzten mahatsondoak; batzuek baserriari bultzada txiki bat emateko asmoz, eta beste batzuek helburu handiagoak lortzeko itxaropenez.







Meroldiko txakolina

**katan**

Txakoli de muntaña



**maiora**

txakoli



11% vol.

75 cl.



**Arritxola**

*Etxeko berezia*

11,98 vol.

75 cl.



**ISASI**

Bizkaiko Txakolina

75 cl.

11% vol.



Bizkaiko Txakolina

**MIKELDI**

11% vol.

Elaborado y embotellado por los Etxand

Dunagoi, Bizkaia

48.900 cl. 100% uva. 100% txakoli

[www.ekhandtxakolina.com](http://www.ekhandtxakolina.com)



75 cl.

**LARRINGAN**



Bizkaiko Txakolina

Denominación de Origen

EMENDI LARRIN LARRINGAN S.L.

8. 48.900 cl. 100% uva. 100% txakoli



**Mendraka**

Bizkaiko Txakolina



HONDARRIBE ZURI

BERNARDUA

11,98 vol.



**Amezketeta**

Bizkaiko Txakolina

Denominación de origen



11,98 vol.

Elaborado en Bizkaia



 "Etxan" upategiko mahatsondoak, Orozketa.


Gaur egun eskualdean 51 hektarea mahatsondo baino zertxobait gehiago landatuta dago, eta 238.000 litro txakolin ekoizten dira. Bizkaiko Txakoliña deituraren barruan zazpi upategi daude: Arritxola eta Bikandi, Durangon; Amezketan, Isasi eta Etxan, lurretan; Larringan, Abadiñon; eta Mendraka, Elorrion. Aipatutako upategiez gain, ekoizle txiki batzuek upategi horiei saltzen dizkiete mahatsa, eta beste batzuek eurek egiten dute txakolina, nahiz eta deituraren barruan ez egon. Bestalde, Muxikako lurretan, baina lurretako mugan, Azloa Oxibaltza upategiaren mahatsiak daude.

Juantxi Sarasketaren iritzi, negozio honi eusteko gako, eta gaur egun daukan osasuna lortzeko gako, zentzuz jokatzea izan da. “Durangaldeko upategi gehienak familia mailako proiektuak dira eta lursailak txikiak. Negozioak pixkanaka hazten dira urtetik urtera, produkzioaren premiak eta saltzeko benetako aukerak kontuan izanik”. Hazkundera patxadatsua eta etenik ga-

bekoa denez, gaur egun Durangaldea pisuzko eskualdea da Bizkaiko txakolingintzan.

Hazkunde horrekin batera, eta ardo-ekoizpenaren osagarri gisa, ekoizleak turismo enologikoari loturiko proiektuak sortzen hasi dira. Elorriko Mendraka upategia dugu horren adibide, upategira bisita gidatuak eta probatze-saioak antolatzen baititu.

2012an uza paregabea lortu ondoren, bai kantitateari bai kalitateari dagokionez, hitz hauek idazten ari garen urtean Mildiu gaitzaren arriskua oso handia da. Udaberriko etengabeko euriek eragiten du Mildiu gaitza. Urtero lez, aurten ere enologoak eta ekoizleak uda osoan atse denik gabe ari dira zeruari eta mahatsandoei begira.

## Uri Astola



[www.anboto.org](http://www.anboto.org)



**anboto**  
komunikabideak



@anboto



Anboto komunikabideak

+INFO> WWW.KMON.INFO

# KMON<sup>®</sup> City

ESZENAKO MAGAZINA | EL MAGAZINE DE LOS ESCENARIOS

**BANAKETA  
DISTRIBUCIÓN KMON:**

BILBAO  
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN  
VITORIA-GASTEIZ  
SOPELANA  
ALGORTA-GETXO  
ROMO  
SARRIKO  
BARRIKA  
BARAKALDO  
PORTUGALETE  
LAUDIO  
DURANGO  
AMOREBIETA-ETXANO  
ELORRIO  
BERRIZ  
ABADIÑO  
IURRETA  
BEDIA  
IGORRE  
ZEANURI  
ARTEA  
LEMOA  
...

HARPIDETU  
ZAITEZ KMON NEWS  
ASTEROKO BOLETINEAN  
**WWW.KMON.INFO**  
SUSCRIBETE AL  
BOLETÍN SEMANAL  
KMON NEWS

A close-up, horizontal photograph of a rifle barrel, showing the rifling and the muzzle. The barrel is dark and metallic, set against a blurred, warm-toned background.

---

TEXTO: JUAN L. CALVÓ

FOTOS: TXELU ANGOITIA / ARCHIVOS

---

# LA FÁBRICA DE ARMAS DE DURANGO

---

En 1990 fue demolido en Durango el edificio de Magdale-  
noste, la vieja fábrica mediante la que la Villa figuró entre  
las productoras de armas de fuego establecidas en el País  
Vasco. Interesado desde siempre por las armas de fuego  
antiguas, ávido por conocer su historia, la de la factoría que  
las produjo en Durango me fue facilitada por mis amigos  
José María Uriarte y José María Larrakoetxea, obtenida por  
ellos en el Archivo Municipal de Durango. Debo precisar  
por tanto que sin su generosa ayuda poco podría escri-  
bir acerca de las escopetas y revólveres que se acreditan  
producto de la sociedad "Riera, López y C<sup>a</sup>" o bien de la  
"Fábrica de Durango".

---

A close-up photograph of a metal tool handle, likely a hammer or similar instrument. The handle is dark and has a textured surface. A prominent feature is a rectangular metal band or label stamped with the text "FABRICA DE DURANGO" in two lines. The lighting is dramatic, highlighting the metallic sheen and the texture of the handle. The background is dark and out of focus.

FABRICA DE  
DURANGO



El edificio de Magdalenoste, en Durango, poco antes de su demolición. Fotosol.



Magdalenoste desde el aire.

En el año 1864, el industrial armero Mariano Riera obtuvo "privilegio de invención"<sup>1</sup> por un sistema de escopeta de retrocarga para cuya producción se formó la sociedad "Riera, López y C<sup>a</sup>" proyectando establecer una gran fábrica de armas en Durango, aprovechando el interés de aquella Corporación por conseguir el establecimiento de nuevas industrias en su término municipal. Así fue que "Riera, López y C<sup>a</sup>" solicitara de la Corporación una subvención anual de 5.000 RS a satisfacerse por plazo de diez años, condicionada a que la empresa diera ocupación a un mínimo de 150 personas. Una ocupación inferior a este número reduciría proporcionalmente la subvención a obtener anualmente.

Aceptada esta propuesta, en acta de 15 de agosto de 1864 se hacía constar que *"Estando reunidos en Cuerpo de Comunidad y a puerta abierta, entró D. Mariano Riera, inventor de un nuevo sistema de armas*

<sup>1</sup> Denominación que se daba en la fecha a lo que hoy se definen patentes.



 D. Gervasio de Jáuregui.



 Ciriaco de Astola

*de fuego, en la Sala Capitular, al objeto de regalar al Municipio, la primera arma construida en la nueva fábrica de Magdalenoste, consistente en una escopeta que portaba en su mano, y tras él entraron también los socios fundadores y dos niños que traían una linda almohadilla encarnada, donde colocar el arma: y adelantándose el propio señor Riera, en breves pero sentidas frases ofreció al Municipio la citada escopeta, como la primera construida en esta Villa, como testimonio que abrigaban los fundadores de la fábrica a la ilustre Corporación que tanto les había protegido. En nombre del Ayuntamiento, D. Gervasio de Jáuregui, Alcalde de la Villa, tras haberla aceptado les dio las más expresivas gracias, con la promesa de que dicha escopeta sería custodiada en el Archivo, como recuer-*

*do gratísimo de este día que señalara una nueva era de prosperidad para la Villa, y que se extendiera acta de esta efeméride”.*

Natural de Manresa, en 1840 Mariano Riera figuraba establecido en Barcelona con un taller de armería, solicitando en 1852 un inicial privilegio de invención por “Unas armas de fuego y lo concerniente a ellas” que al año siguiente patentó en Francia, Inglaterra y Bélgica, desplazándose seguidamente a Eibar con el fin de organizar su producción allí. En fecha 24 de noviembre de 1853 su alcalde, Cándido Aretio, certificaba la “puesta en practica” del “privilegio” de Mariano Riera, requisito que establecía la ley para mantener su validez por plazo de diez años.



En la firma "Riera, López y C<sup>ª</sup>" la identidad del apellidado López es confusa. En el primer censo de Durango, del año 1871, Uriarte sólo encuentra de este apellido a D. Simón López y Anguita, maestro de primera enseñanza que pudo no tener participación en ella. La actividad de Riera requería de cierto capital y asociarse con inversores era la forma usual de reunirlos. En 1853 también figuraba asociado con Juan Bautista Centurión, de Madrid, en la solicitud de un privilegio de invención por "Procedimiento para convertir el hierro fundido en maleable y acero", y en 1860 formaba parte de la sociedad "Riera, Zamora y C<sup>ª</sup>", en Madrid, que obtuvo una contrata del Gobierno para la construcción de 8.000 carabinas modelo 1857 en que utilizar cañones suministrados por la Fábrica de Artillería de Trubia.

Los sistemas de armas de fuego descritos por Mariano Riera en 1852 y en 1864, sólo tenían en común el hecho de ser "de retrocarga" y utilizar una cartuchería singular ideada en cada caso por el mismo inventor, que constituía lo más novedoso de ellos. El privilegio que solicitó en 1864 con el enunciado "Sistemas de armas de fuego que se cargan por la recámara y de la carga especial para las mismas", incluía un arma larga de fuego en variantes de escopeta de caza y de fusil militar, así como un revólver de bolsillo, las primeras utilizando cartuchos que podían estar cargados con perdigones, postas o bala, y el revólver únicamente cartuchos cargados con bala. Todos estos cartuchos "sistema Riera" contaban con el fulminante en el centro del culote, del que sobresalía lateralmente una es-




Ilustración adjunta a la solicitud del privilegio de invención solicitado por Mariano Riera en noviembre de 1865.





Escopeta sistema Riera, decorada en plata, con cañón inscrito P<sup>o</sup> DE RIERA LOPEZ Y C<sup>o</sup> DURANGO. Cortesía de D. Alejandro.




Ilustración adjunta a la solicitud del privilegio de invención concedido a Mariano Riera en junio de 1864.

**FÁBRICA**  
**DE ARMAS DE FUEGO**  
DE TODAS CLASES. Y DEL SISTEMA  
**RIERA.**

Privilegiado en España, Francia, Inglaterra y Bélgica.  
**ESTABLECIDA EN DURANGO,**  
D<sup>o</sup>C  
**GUERREDIAGA ASTOLA Y COMPAÑIA.**

Se fabrican escopetas del sistema Riera, de un cañón.  
Id. id. id. id. de dos cañones.  
Id. id. id. id. entrolinas y finas de uno y de dos cañones

Cartuchos ó tubos supletorios.  
Id. de carton, cargados.  
Id. id. sin cargar.

Cananas.

Escopetas, sistema comun ó ordinario, de un cañón.  
Id. id. id. id. de dos cañones.

Pistolas de todas clases.

Revolvers de reglamento, de bolsillo y de chaleco.  
Id. de bolsillo, sistema privilegiado.

Cartuchos de todas clases.

Se establecen en Durango agencias para depósito en Madrid y correspondencia en los principales puertos de España.  
TODOS LOS DEPÓSITOS SE SERVIRÁN CUANTOS PEDIDOS SE HAGAN.

piga como en los cartuchos denominados “de espiga” o “Lefaucheux”, espiga en los “Riera” no tenía otra utilidad que la de facilitar su extracción de la recámara una vez disparados.

El certificado de “puesta en práctica” de este privilegio de Riera figura expedido en Durango el año 1865, indicándose en él que la firma “Riera y C<sup>a</sup>” se ocupaba de la construcción de las armas a que hacía referencia. En este mismo año y con ocasión de una visita de la Familia Real a Durango, le fue obsequiada una carabina al futuro Alfonso XII, que en la fecha contaba algo más de siete años de edad. Puede tratarse del ejemplar referenciado K-357 en el catálogo de la Real Armería editado en 1987, inscrito el cañón  **NUEVA INVENCIÓN F<sup>a</sup> DE DURANGO RIERA – RIERA LOPEZ Y C<sup>a</sup>**. No se de la existencia de muchas escopetas de este sistema, en el Catálogo General del Museo de Artillería, editado en 1911, se reseña con el número 5299 un ejemplar de dos cañones marcado **F<sup>a</sup> DE RIERA LOPEZ Y C<sup>a</sup> DURANGO**. Esta escopeta no aparece en el Catálogo del Museo del Ejército publicado el año 2003, donde si figura con la misma marca y el número 33278, otro ejemplar de escopeta sistema Riera, de un único cañón.

También en 1865 Riera solicitó un nuevo privilegio de invención, esta vez con el enunciado: “*Sistemas para transformar armas de pistón que hoy se cargan por la boca y con baqueta*”, en el que describía un sistema a aplicar en la transformación a retrocarga de armamento militar de antecarga, que utilizaría los cartuchos con bala de su anterior privilegio. Este sistema de transformación fue ejecutado en un fusil reglamentario suizo, modelo 1863, que con la denominación de “Riera – Durango” se presentó sin éxito a un concurso convocado en 1865 por el Gobierno suizo. Un fracaso

que originaría la renuncia a presentarlo al concurso convocado en España el año 1866.

Es probable que “Riera, Lopez y C<sup>a</sup>” no llegara a fabricar el fusil con bayoneta ni el revólver incluidos en el privilegio de invención de 1863, pero su producción de escopetas “sistema Riera” de uno y dos cañones la complementó con la oferta de revólveres para cartuchos de espiga. Su marca figura en ejemplares del Lefaucheux 1854 Cal. 12 mm, el modelo “de reglamento” para oficiales del Ejército, así como en modelos comerciales Cal. 9 mm en cuya mecánica pudo tener protagonismo el armero Santiago Zarandona, que en 1864 solicitó privilegio de invención con el enunciado: “Piezas n<sup>o</sup> 1, 2, 3 y 4 de revólver, marcadas con sus nombres”. Procedente de Eibar, Zarandona se domicilió en Durango y la puesta en práctica de su privilegio se certificó realizada por la fábrica de “Riera, López y C<sup>a</sup>”.

En el periodo comprendido entre agosto de 1865 y julio de 1866, la suma abonada por la Corporación fue de 3.472,25 RS, en el siguiente fue de 2.041 RS, y en el de 1867-1868 se redujo a 1.030,- RS, lo que demuestra que no sólo no llegó a alcanzarse la ocupación prevista, sino que esta iba en descenso. La quiebra de la sociedad “Riera, López y C<sup>a</sup>” se produciría en 1866, fecha a partir de la cual no se sabe más de Mariano Riera, manteniéndose la actividad de la fábrica de Magdalenoste gestionada por una “comisión liquidadora” presidida por D. Ciriaco de Astola y Ortueta, nacido en Abadiño el año 1821, cirujano de profesión y residente en Durango desde el año 1845.

En enero de 1868, Astola se dirigía a la Corporación recordándole el compromiso de ayuda económica a la fábrica, exponiendo: “*Como es público y notorio, la fabrica no sólo ha funcionado sin interrupción desde*



# Diferentes modelos de revólver fabricados por Riera & Cia



🔵 Revólver de bolsillo con mecanismo de doble acción, para cartuchos de espiga calibre 9 mm. Número 13962, marcado en el cañón FABRICA DE DURANGO.



🔵 Revólver de bolsillo Chamelot & Delvigne con mecanismo de doble acción, para cartuchos de espiga calibre 9 mm. Carente de número de fabricación, marcado en el cañón FABRICA DE DURANGO.



🔵 Revólver Kerr modelo 1864 de Marina, marcado FABRICA DE DURANGO, transformado para el uso de cartuchos metálicos, según modelo 1870.





○ Revólver de reglamento, Lefauchaux 1854 para cartuchos de espiga Calibre 12 mm. Número 302, marcado en el cañón RIERA LOPEZ Y C<sup>o</sup> DURANGO.



○ Revólver de bolsillo con mecanismo de fuego en cadena, para cartuchos de espiga calibre 9 mm. Número 1358, marcado en el cañón RIERA LOPEZ Y C<sup>o</sup> DURANGO.



○ Revólver Kerr modelo 1864, de Marina, para cartuchos combustibles de cebado independiente por pistón. Seis tiros, calibre 11 mm.



○ Revólver de reglamento, Lefauchaux 1854 para cartuchos de espiga calibre 12 mm. Número 13216, marcado en el cañón FABRICA DE DURANGO.





🕒 Revólver en el Museo de Arte e Historia de Durango

*aquella época hasta otra igual del pasado año 1867, sino que durante ella ha llevado a cabo una contrata de revólveres celebrada por el Gobierno de S.M. empleando en los trabajos un número considerable de operarios".* Se refería a la contrata de fabricación de 1.500 revólveres Kerr modelo 1864 de Marina, realizada en Durango bajo la supervisión de D. Félix Llanos de la Torre, oficial del Cuerpo de Estado Mayor de Artillería de la Armada.

El revólver Md. 1864 reemplazaba el inicial revólver Kerr adoptado en 1862 por la Armada española, en sustitución del modelo de pistola que equipaba a la marinería en los servicios de armas. La fabricación del Kerr 1862 se había contratado en la Real Fábrica de Placencia, y la supresión de ésta por real orden de 13 de enero de 1865 originó la contrata del nuevo modelo

en Durango, con ejemplares marcados **FABRICA DE DURANGO**, y en Eibar, producidos por la firma "Orbea Hermanos" (4.000 u/.).

Con la obtención de esta contrata del Gobierno renacieron las esperanzas acerca del futuro de la fábrica, que en 1868 pasó a ser gestionada por la sociedad "Guerediaga, Astola y C<sup>a</sup>". Aquel mismo año se registraba en Durango una importante inmigración de vecinos procedentes de Placencia, probablemente armeros que confiaban ser empleados en la fábrica y su gerente, D. Ciriaco de Astola, fracasaba en su propuesta a la Corporación de algo que consideraba imprescindible para el buen futuro de la empresa, como era la creación de una escuela de dibujo lineal y adorno en que contratar como profesor al grabador eibarrés Salvador Larruscain.

En 1869, el anuario "El Indicador de España" insertaba publicidad de la "*Fábrica de Armas de Fuego de todas clases y del sistema Riera*" establecida en Durango, propiedad de la sociedad "Guerediaga, Astola y Compañía", con oferta de cartuchería "*de todas clases*", escopetas sistema Riera de un cañón y de dos cañones, en calidades "*entrefinas y finas*", escopetas comunes de uno y dos cañones, pistolas de todas clases, "*revolvers*" de reglamento, de bolsillo y de chaleco, así como "*revolvers de bolsillo, sistema privilegiado*", afirmando contar con "*Depósito central en Durango, otro gran depósito en Madrid y corresponsales en las principales provincias de España*".

La producción de los 1.500 revólveres Kerr Md. 1864 contratados para la Armada y construidos en los años 1866-67, se marcaron **FABRICA DE DURANGO**, y la firma "Guerediaga, Astola y C<sup>a</sup>" utilizó la misma reseña en la comercialización de sus revólveres para cartuchos de espiga, que incluían el Lefauchaux 1854 para cartuchos de 12 mm como "*modelo de reglamento*", así como los convencionales "*de bolsillo y de chaleco*", para cartuchos de 9 o de 7 mm.

En su oferta de "*revolvers de bolsillo sistema privilegiado*", "Guerediaga, Astola y C<sup>a</sup>" no creo incluyera ejemplares del descrito por Riera en 1863, del que no tengo visto ejemplar alguno. A nombre de esta sociedad o al de Fábrica de Durango no he encontrado solicitud de privilegio de invención o de introducción alguno, por lo que su oferta comprendería los construidos según el "de invención" registrado en 1864 por Santiago Zarandona y el "de introducción" registrado en 1872 por el armero Amado o Armando Barthelet, con el enunciado "*Fabricación de revólveres, propiedad de las piezas marcadas con los números 1, 2, 3, 4, 5, y 6 para la construcción del revólver Chamelot*".

En la solicitud de este privilegio, Barthelet, de origen francés o belga, se dice avecindado en Durango, y marcados en España no conozco otros ejemplares del revólver Chamelot & Delvigne que uno inscrito **FABRICA DE DURANGO**.

En el ejercicio 1868-69 la Fábrica de Durango casi alcanzó la ocupación mínima establecida, la Corporación abonó la suma de 4.095,55 RS, decayendo seguidamente según demuestra la suma de 3.675,- RS percibida por el ejercicio 1869-70 y la de 2.800,- RS por el de 1870-71. No se citan nuevos pagos, de lo que deducir que la producción cesaría a finales de 1871 o en 1872 coincidiendo con el alzamiento carlista, durante el que desaparece definitivamente toda mención de esta Fábrica.

En febrero de 1869, la Armada admitió que la adopción del revólver Kerr no había resultado acertada, declarando fuera de servicio los construidos en Placencia y limitando a siete años el plazo de duración de los construidos en Eibar y Durango, modelo 1864, disponiéndose en 1870 que todos ellos fueran transformados para la utilización de cartuchos metálicos, según un modelo propuesto por el artillero de la Armada, D. Gaspar de Salcedo, luego simplificado en otro presentado en 1872 por el armero Alejandro Olavarria.

Un buen número de revólveres Kerr Md. 1864 marcados **FABRICA DE DURANGO**, figuran hoy transformados en alguno de los modelos de 1870 o de 1872, pero su transformación no se realizó en Durango, se concedió a un contratista que distribuyó este trabajo entre distintos talleres de Eibar.

**Juan L. Calvo**

# OTXANDIO

---

Iragana ahaztu gabe, eguneroko lanarekin,  
etorkizuna eraikitzen ari den herria.







kultura eta  
kirolaren  
alde



**berrizko**  
U D A L A





# BARRUKO IBILBIDEAK

**ARGAZKIAK: TXELU ANGOITIA**

Bost gonbidatuek barruko bidezidorretatik eramango gaituzte, sakoneko bidexka apaletatik. Paisaia ikusgarriak alde batera utzita, leku xumeetara eta intimoetara begiratzeko gonbitea egiten digute, eurentzat oso bereziak diren bazterretara gerturatzeko keinua.

Sarritan bakoitzaren haurtzarora egiten dute bidaia. Rilke poeta handiak esan zuenez, horixe omen da "gure aberri bakarra".

Munduko lekurik kutunena denez, euren burua horra loturik dago. Leku hori gure jatorria izango da urliarentzat; helmuga sandiarentzat; eta ametsen lurralde hauskorra berendiarentzat. Ale honetara ekarri ditugun gonbidatuentzat toki horiek Durangaldean daude.







## ETXOSTEKO ERREKA

Leku esanguratsu bat topetako esan eustenien,  
bapatien nire ume denborara jo neban  
eta gure baserrixen etxosteko erre kara  
eruen nau bidaitxo honek.  
Gaur egunekoa ez da nik ezagututako erreka,  
ordukoa baztar zoragarria,  
orain galdutakoaren pena sentitzen dot.  
Barru-barruen sentitzen dot erre karen zarata,  
berarekin jaio nintzen  
eta berarekin bizi izan nintzen nagusitu arte.  
Uda sasofien makina bat ordu  
pasau genduzen olgetan erreka inguruen...  
harrixek jaurtiz ura ziprintinduz,  
abarketa zahar batzuk jantzi  
eta kangreju harrapetan, baiñetan, zapateruek hartzen...  
Zenbat gogoeta ordukuek!

**AMAIA GORROÑO | BERRIZ**





## IZURTZAKO FRONTOIA: SALDA BADAGO

1988.ko udaberria zen. Ez dakit zer ospatzen zen Izurtzan baina hara bildu ginen Durangoko bertso-eskolako sei gaztetxo: Munitxa, Zarrabeitia, Ellakuriaga, Esturo Iturriaga eta Elortza ginen alineazioan eta Santi Belar Begi zena gidari. Gutako gehienontzat estraineko aldia zen jendaurrean eta alde zurretik goitik behera prestatu genuen saioa, buruz ikasi genituela bertsoak, alegia. Akats galanta jendaurreko jarduna memoriaren esku uztea saioan majo frogatu genuenez: bertso biren erdiekin osatzen genuen bakarra edo beste gai bati zegokion bertsoarekin erantzuten genion jarritako gaiari, halakoak.

Asteburu hartan, Gerediagak birritan bakarrik antolatu duen euskara hutsezko liburu eta disko azoka suertatu zen Durangon. Milana pezeta eman zizkiguten ordain Izurtzan eta bertara abiatu ginen azaina egin berri genuen taldea. Hertzainak Salda badago diskoa kaleratu berri zuen (euren diskografiatik bakarra aukeratu behar banu, bera) baina mila eta ehun pezeta balio zituen. Santi Begik eman zizkidan faltan nituen ehunak. Ez dut sekula ahaztuko, Santi Begi.

Gerora, Josu Zabalararekin egin ditugun saltsa ezberdinak tarteko Mekoletara ensaiatzera gindoazen aldiro Izurtzako frontoiaren paretik igarotzean, ezin izan dut lotura egitea ekidin: zelan nire lehenengo plaza euren disko batekin dagoen lotuta eta, frontoian hormabikoa eginez, euskara hutsezko liburu eta disko azoka batekin.

**UNAI ITURRIAGA | DURANGO**

## MARMOLEZKO KANTERA

Toki honek zirrara berezia sortzen dau nigan. Txikitatik izan da nire bizitzaren partein guru hau. Aitarek lan gogorraren testigu izan da. Berari bazkaria ekartera ere sarritan etorria naz. Txikia izanik hemengo harriak izugarri erraldoiak iruditzen zaizkidan..

Gerora bizitzako momentu askotan etorri izan naz hona. Hemendik herriaren ikuspegi desberdina lortzen dalako, herria txiki eta hurrinean ikusten da, eta horrek eguneroko arazoak distantziaz begiratzen laguntzen dau, naturak jartzen dituen soinuekin lagunduta.

Nagusitu naizen ehinean txikitako harri erraldoi hareek ere heuren tamainara bihurtu dira.

**M<sup>a</sup> PUY INZUNZA | MAÑARIA**







## LARRABIL

